Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bilbo



Aurkibidea

Udalerria: Bilbo

Sarrera



Bizkaiko hiriburua eta Euskal Herriko hiririk handiena. Euskararen aurkako legeek, merkataritzara zuzendutako portua izateak eta XIX. eta XX. mendeetako industrializazioak erakarritako emigrazioak asko azkartu zuten euskararen galera. Hala ere, 1920an biztanleriaren % 20 euskalduna zen, orduan egindako erroldaren arabera. 1981ean, berriz, % 6 bakarrik ziren. Jatorrizko euskara galduta dago hiriguneetan, baina baserri-auzoetan geratzen dira oraindik euskaldun zahar banaka batzuk, Buian, Begoñan eta Larraskitun, esaterako.

Argazkia: Doomenicvs

- **Biztanleak**: 352.187
- **Euskaldunak**: %24,25

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **25**
- Zintak: **27**
- Pasarteak: **329**
- Transkribatutakoak: **16**
- Audioak: **35**
- Bideoak: **293**

Proiektuak

- 101L - Herriz herri
- Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- Betiko Ikastola
- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Durango 1936
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- SOKA: Euskal Dantzaren Urratsetan
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Teodoro Aginaga (1866)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Arotza zen eta 47 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.217

Josu Agirre Bilbao (1958)



Etxepintxo baserrian jaio zen, Arbolantxan, eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak ere Arbolantxakoak bertakoak zituen eta baita aitita-amamak ere, bat izan ezik. Gaztea zela, aita hil zitzaion eta etxeko ganaduen kargua hartu behar izan zuen Josuk. Hori dela-eta, inguruko baserritarrekin harreman estua izan du eta ferietara eta merkatuetara ere sarritan joaten da eurekin. Fabrikan urte askoan beharrean ibili den arren, beti jardun izan du baserriko beharretan: ortua, behiak... Elkarrizketa garaian, eskola bateko atezaina zen. Arbolantxako antzinako bizimoduaz hitz egin genuen berarekin egon ginenean, inguruko herriez, ganaduez eta soloko beharrez, besteak beste.



Begoña Altuna Diaz (1989)

Euskal filologian lizentziaduna da eta UEUko hainbat jardueretan parte hartzen du.

Olatz Arriola-Bengoa Ortega (1986)



1986ko azaroaren 13an jaio zen Bilbon, eta Bilboko Santutxu auzoan bizi izan da beti. Gurasoak ere bilbotarrak ditu. “Ikus-entzunezko Komunikazioa” ikasketak egin zituen eta kazetari lanetan dabil egun. Gaztedi Dantzari Taldeko partaide eta eragilea da eta taldeko Ane Garairekin batera egin genion elkarrizketa. Santutxuko errealitatea, hizkera informala, dantza taldea eta maskarada izan genituen aipagai, beste hainbat konturen artean. 2014ko ekainaren 28an Zalgize-Donezteben jokatu zuten maskaradari buruz ere hitz egin genuen, nola ez, hegoaldeko talde batek Zuberoan maskarada jokatzen zuen estreinako aldia izan baitzen hura.

Patxi Azkarate Maturana



Bilbon jaio arren, Durangon bizi da urte askoan. Durango 1936 Elkartekoek egin zioten elkarrizketa Bego Elejabarrietarekin batera, bere gurasoek gerra sasoian bizitakoak jasotzeko.

Bego Elejabarrieta Gonzalez



Bilbon jaio arren, Durangon bizi da urte askoan. Durango 1936 Elkartekoek egin zioten elkarrizketa Patxi Azkaraterekin batera, bere gurasoek gerra sasoian bizitakoak jasotzeko. Aita, Angel Elejabarrieta, Bilboko San Frantzisko auzoan sortu zen 1920an (Iurretakoa zuen aita) eta sozialista zen. Ama, Claudia Gonzalez, Artxandako lubakiak egiten ibili ei zen.

Jordi Estivill i Castany (1985)



Jatorriz Katalana, Jordi Bilbon bizi da gaur egun. Politika Zientziak ikasi zituen eta hainbat ikerketa sozial egin ditu. Maitasunaren bultzadaz ekin zion euskara ikasteari, Bartzelonan. Euskal Herrira etorri, eta euskara ikasten jarraitzeko asmo trinkoarekin barnetegian eman zuen denboraldi luze bat, euskara guztiz menderatzea lortu zuen arte. 101 L proiekturako ere elkarrizketatu genuen, katalana jasotzeko.

Davide Filgueiras Cabaleiro (1982)



Davide Coruñan jaio zen, Galizian, eta bertako unibertsitatean egin zituen Giza Baliabide ikasketak. Gerora Euskal Herriarekiko jakin-mina piztu zitzaion, eta hala erabaki zuen bere bizilekua Bilbon ezartzea. Hasieratik izan zuen argi Euskal Herrian bizitzeko euskaraz ikasi behar zuela, eta oso denbora laburrean lortu zuen hizkuntza menderatzea. Era berean, euskal kulturari buruz hausnartzen ahalegintzen da. Ikus-entzunezko esparruan profesional bezala aritzeko bere nahia betetzen dihardu, bideo ekoizle bezala. Bere aisialdian irakurle amorratua eta bidaiazalea ere bada. 101 L proiekturako ere elkarrizketatu genuen, galiziera jasotzeko.

Ane Garai Urkixo (1987)



Ane 1987ko martxoaren 17an jaio zen, Bilbon, eta Santutxu auzoan bizi izan da betidanik. Gurasoak ere bilbotarrak ditu. Bi senidetan lehendabizikoa da. Itzulpengintza eta interpretazioa ikasi zituen unibertsitatean. Itzultzaile lanetan ari da eta euskara irakasle ere bada. Egun, zeinu hizkuntza interprete izateko ikasketak egiten ari da. Gaztedi Dantzari Taldeko partaide eta eragilea da eta talde bereko partaide den Olatz Arriola-Bengoarekin batera egin genion elkarrizketa. Santutxuko errealitatea, hizkera informala, dantza taldea eta maskarada izan genituen aipagai, beste hainbat konturen artean. 2014ko ekainaren 28an Zalgize-Donezteben jokatu zuten maskaradari buruz ere hitz egin genuen, ezinbestean, hegoaldeko talde batek Zuberoan maskarada jokatzen zuen estreinako aldia izan baitzen hura.



Arantza Gurrutxaga



Xabier Isasi Balanzategi (1956)

Doktorea da Psikologian, UEUko zuzendaria izan zen 2000-2004 urte tartean eta UPV/EHUko irakaslea da Psikologia fakultatean.



Xabier Kintana (1946)

Garbiñe Kortajarena Bilbao (1946)



Bilboko Seberetxe (Buia) auzoko Zeleikoaretxeta baserrian jaio zen eta lau neba-arrebatatik gazteena izan da. Gurasoak ere Bilbotarrak zituen, euskaldunak. Aita Bilboko udaletxeko behargina izan zen eta aitita Peñako errekako jagolea. Amak eta amamak, ostera, esnea saltzen zuten Bilboko kaleetan. Gaztetan Buiako eskolan ibili zen eta, gazteena izateagatik, neba-arrebatatik eskolan denbora gehien eman zuena izan zen. Hori dela-eta, ez da baserriko beharretan asko ibili. Inguruak jasan dituen aldaketez eta umetako bizimoduaz hitz egin genuen berarekin egon ginenean. Karmele ahizparekin batera egin genion elkarrizketa.

Karmele Kortajarena Bilbao (1930)



Bilboko Seberetxe (Buia) auzoko Zeleikoaretxeta baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Lau neba-arrebatatik bigarrena izan da Karmele. Gurasoak ere bilbotarrak zituen, euskaldunak. Aita Bilboko udaletxeko behargina izan zen eta aitita Peñako errekako jagolea. Amak eta amamak, ostera, esnea saltzen zuten Bilboko kaleetan. Eskolara Buiara joaten ziren eta elizara, Arrigorriagara tokatzen zitzaien arren, Peñara. Ingurua asko aldatu dela kontatu zigun berarekin egon ginenean, asko erdaldundu dela. Horregatik, Bilboko euskara gordetzen duen azkenetariko lekukoa dugu Karmele. Garbiñe ahizparekin batera egin genion elkarrizketa.



Amaia Larrinaga (1950)



Ainhoa Latatu Nuñez (1973)

Biologian doktorea da eta UEUko unibertsitate ikasketen arduraduna.

Eugenia Legina Zarate (1929)

Bilboko Begoña auzoko baserri batean jaio zen 1929. urte inguruan, Ibarsusin. Gurasoak ere Begoñakoak ziren. Basauriko Finagara ezkondu zen bertako Jose Mojagaz. Basauriko euskararen azterketa linguistikoa lanerako egin zitzaion elkarrizketa Jose senarrarekin batera.

Julen Madariaga Agirre (1932-2021)



Bilboko Abandon jaio zen. Aita eta aitona legegizonak zituen. Aitona izan ei zen Lizarrako Estatutuaren (1932) idazle nagusiena. 1937ko martxoan itsasontziz Iparraldera ebakuatu zuten amarekin eta neba-arrebekin batera, eta handik gutxira Arrotxelan barkua hartu eta Txilera joan ziren bizitzera, senideak baitzituzten han. Bilbora itzuli zen 1946an. Deustun eta Oviedon egin zituen unibertsitate-ikasketak, "abokatu-ekonomista" karrera, hain zuzen. 1962an Doktoradutza egin zuen Cambridge-n. 1952-53 aldera EKIN taldearen sorreran parte hartu zuen eta 1959an ETArenean, Txillardegi, Benito del Valle eta beste batzuekin batera. Sei hilabete egin zituen preso Carabanchelen 1960-61ean. Irten eta gutxira, Iparraldera joan zen bizitzera. Harrezkero, Herri Batasuneko, Elkarriko eta Aralarreko kide izan zen, besteak beste. Euskaldun berria, Xabier Peñarekin hasi zen euskara ikasten 50eko hamarkadan.

Egin genion ia bost orduko elkarrizketan bere bizitzaren lehen partea jorratzeko astia izan genuen bakarrik. Baina tartean badira zertzelada batzuk gauza berriagoez.



Ainhoa Markinez Arruza

Magisteritzan lizentziatua da eta musika irakaslea. UEUko zuzendaritzako kide izan da.

Maria Moja Landeta (1909)

Bilbokoko Buiagoiti auzoan jaio zen 1909 urte inguruan. Gero, Briskieta auzoko baserri baten joan zen bizitzera. Basauriko euskararen azterketa linguistikoa lanerako egin zitzaion elkarrizketa Arrigorriagako Tomas Artarasekin eta Zolloko Jesusa Lekandarekin batera.



Txema Montero Zabala (1954)

"Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia" proiekturako egindako grabazioa. Gaztelaniaz dago.



Olatz Pereda Iriondo (1991)

Biologian graduatua da eta EuskalNatura taldeko kidea. UEUko Natura Zientzietako sailburua izan da. Elkarrizketan Libe Solagaistua kidearekin batera agertzen da.

Tere Rotaetxe Chalbaud (1919)

Aita, Ignacio Rotaetxe (Gasteiz, 1888 - Zeanuri, 1951) euskal ingeniari eta politikari abertzale eta jeltzalea izan zen, Espainiako Gorteetan EAJ alderdiko diputatu ere izan zena. Ama, Juana Chalbaud (1895-1979), Pedro Chalbaud negoziogizon eta bizkaitar burgesiako kidearen alaba zen. Tereren aititak, "Unión Española de Explosivos" enpresako nagusia izateaz gain, Bizkaiko Batzar Nagusietan kargu garrantzitsu ugari izan zituen, Bizkaiko Ahaldun Nagusi bilakatu arte. Sei anai-arreba izan zituen Terek. Bera andereñoa izan zen eta ikastolen sorreran garrantzia handia izan zuen, bai eta euskara eta euskal kultura bultzatzeko beste hainbat egitasmotan ere. IRALEren Bizkaiera Bilduma rako egin zitzaion elkarrizketa 1992an.



Kepa Sarasola Gabiola (1958)

UEUko zuzendaria da 2018. urtez geroztik. UPV/EHUko Informatika fakultateko irakaslea da, eta Dekanoa izandakoa.

Txomin Unzalu Arrospide (1934)



Dantzaria eta dantza-irakaslea. Bilboko Dindirri, Santutxuko Gaztedi eta Gernikako Elai Alai dantza taldeetan luze jardundakoa. Dantzaren inguruan egin zion elkarrizketa Euskal Kultur Erakundeak 2015ean, *Soka* proiekturako.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Aitona Txilera bizitzera, soldadutzari ihesi

- **Hizlaria(k)**: Madariaga Agirre, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Eider
- **Erref**: BIL-001/003
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:09:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
  Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- **Laburpena**: Bigarren Gerra Karlistaren ondoren, zergak jasotzeko eskubidea galtzeaz gain, soldadutzara egitera behartu gintuzten euskaldunak. Hori dela eta, aitona Txilera joan zen ez egiteagatik. 36ko gerran Francoren alde egon zen aitona.

Transkripzioa
- Eta gure aitona Txilen ibili zen. Gauza interesgarri bat dugu hor. Badakik gure bigarren gerla karlista 1876an amaitu zela eta gero gero-gerokoa, badakigu alukeria eta nola Bergarako kontua eta. Eta hor guk, euskaldunok, geratzen zaizkigun azken... zera, askatasuna edo libertatea edo politikoen aldetik eta, hor galdu genituen. Eta izan zen zergak, alde batetik; lehen aldikoz hasi ginen gu Espainiako zergak pagatzen. Eta lehen aldikoz, batez ere, soldaduska egiten, ez gure milizietan –Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta–, baizik eta Espainiako zera, armadan. Eta gazte asko, dirudienez, ordungo zera, 1976an, delako saldu, salda... jesus, esan dugu ba...!
- Soldaduska?
- Nola?
- Soldaduska.
- Bai, soldaduska, bai. Zera, arrotzaren armada, arrotzaren... ez egiteagaitik Ameriketara joan ziren, eta haien artean gure aitona.
- Aitona, e?
- Gure aitona joan zen Ameriketara, soldaduska ez egiteagaitik, baina batere abertzale izan gabe, e! Nere ustez jende horrek, jende xinplea eta, ez zekiten hori zer zen ere. Orduan. Oindiño. E? Eta areago –neri lotsa [...]–, gerla, 36ko gerla, heltzen da eta gure aitona Francorekin egon zen.

1.2. Bilbon esnea saltzen

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Bilbao, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: BIL-006/006
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:08:35. **Bukatu**: 00:11:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
  Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Baserritik hirira oinez jaisten ziren, bide txarretatik. Amona esnea saltzera joaten zen Bilbora, astoarekin batera. Aitak ur

zerbitzuan egiten zuen lan Bilboko Udaletxean. Zaindari bat egoten zen errekan, jendeak hondakinik bota ez zezan.

Transkripzioa

- Ta hemen nora joateko ohiturea euki dozue, Bilbora edo Arrigorriagara edo?
- Ez, guk Bilbora betik.
- Bilbora beti?
- Ta oin autobuse deku ordu erdirik ordu erdire, baie lehen oiñez.
- Lehen oiñez.
- Oiñez, ta bide txarrak.
- Klaro, klaro.
- Bide txarrak, baie ez dait, ibilli itten garezen eta...
- Bilbo be zure denporatik hona aldatuko zan, ba? Ezta?
- Ze?
- Kanbio handie egongo da Bilbon be?
- Bai, Jesus!
- Nora joaten ziñen, ba, alde zaharrera edo? Edo nora, zure ume-denporan?
- Gure ume-denporan...
- Riberara edo?
- Ez, ez, guk hemen betik, hemeko...
- Baia Bilbora joaten ziñenean, zer? Konpraren bat eiten edo?
- Bueno, konprak Bilbora, bai, betik.
- Baia Bilbora, nora?
- Es ke gure amandre joaten zan esniegaz Bilbora, ta gero ama be bai. Ta aitte, betik biher ein dau aiuntamiñttuen, "servicio de aguas". Bai.
- A, beitu. Eta amak-eta nora eroaten euriezan /eroateuriezan/ esneak, ba?
- Ba, eraten zan etserik etsera, aukitten zien egun guztidxetakoak. Astotxuegaz...
- Eta astoak non, zestoatan edo non?
- Zestoetan, klaro, ta kantiñek.
- Egunero?
- Egunero, egunero. Ha bai ixitten zan egunerako esnie.
- Klaro, klaro, klaro. Eta hori saldu etse... baia ja eukiko zenduen ja... beti bardineri, ezta?
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Eskatute?
- Bai, bai, bai.
- Eskatute ta eureri eroan, ez?
- Bai.
- Orduen behiek euki dozuez?
- Behidxek bai, betik aukin duz.
- Asko edo... zenbet?
- Ba, asko ez zien aukitten, aittek biher eitten gaidxen moduen zerien...
- Aiuntamintuen.
- Aiuntamintuen. Ta aittue ixin zen guarda zerekoa, Peñeko errekakoa ixin zen. O sea ke nik betik... hemen betik urtein daure etsetik biherren. Ta betik bixitten zan, ba, bastante ondo, ez dakixu?
- Karo, etseko... kanpoko diruegaz hobeto, ezta?
- Bai.
- Karo.
- Badakixu, hamar badiez, hamar dekozuzela.
- Bai, beti bardin.
- Hillien azkenien.
- Bai, hori... hori egie da, hori egie da. Ta errekan guarda, ba, ze eiten euen

/eiteuen/, ba?
- Peñeko erre... ba, jentiek ez daidxen bota porkeridxak eta.
- A, beitu, beitu.
- Bai.

1.3. Igandetan dantzara

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Bilbao, Garbiñe; Kortajarena Bilbao, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: BIL-006/052
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 01:19:56. **Bukatu**: 01:21:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Karmele lehengusina batekin joaten zen dantzara igandetan.

Transkripzioa
- Erromeriek eta. Ze erromerire joango ziñen, ez?
- Garbiñe: Karmele bai.
- Domekatan.
- G.: Karmelek... erromerixa guztixetan egoten zan.
- Karmele: Erromerixa guztixetan, ta oiñez, juan ta etorri.
- Baiña nora?
- K.: Ba herrialdeetara.
- Baiña domekatan? Domeka normal baten, jaiak izin barik, nora?
- K.: Jolin, ez dakit nora jungo...
- G.: [Bidebistara].
- K.: A bai, [Bidebistara] joaten garezen.
- G.: Txunda, txunda, txunda...
- K.: Bai, bai, bai.
- Bai, e?
- K.: Bai, ni lehengosiña bategaz.
- G.: “Las que mejor bailaban de...”.
- Oiñez?
- K.: Oiñez
- Eta Bilbora ez?
- K.: Bilbora gitxi. Niri Bilbo... ez nazen...
- Eta zinera edo?
- K.: Buuu zine...! Noz joan garazen zinera...!
- G.: Hori barrixe da.
- Bai, e? Gaztetan ez ziñien joaten zinera?
- G.: Ni bai, baie...
- Ba hor Miribillan-eta egon zan zinea, ez?
- K.: Non? Bai. Bai, baie belu eitten zan eta gero oinez etor biher ta...
- Klaro, klaro.
- K.: Ta ez dotsuen izten edozein orduten etorten etxera!

1.4. Adinak ez du barkatzen

- **Hizlaria(k)**: Arriola-Bengoa Ortega, Olatz; Garai Urkixo, Ane

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: BIL-013/012
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:16:07. **Bukatu**: 00:18:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Gaztedi Dantzari Taldeko martxa beste edozein kirol edo jardunekin konpara daiteke. Norbera talde bateko parte den momentutik, taldeari zor zaio, hein batean. Baina badakite, bestalde, adin batetik gora ezingo diotela egungo martxari eutsi.

Transkripzioa
- Ane: Kirolak, ez? Asko badauz, ba, ez dakit, arrauna. Arraunlariek be topera ibilten diez eta... Baiña, bueno, geuze bat gustetan jatzunean esaten dozu /esatezu/ "A, ba, beitu, ba, igual konpentsatzen dost", ez? Galdu hametik edo... Eta gero, ba, disfrutetan dozulako kirolagaz, edo ikasketa zeozer asko gustetan bajatzu ez dakit e... uff... karrera bat... ez dakit, oin.. Medikuntza, adibidez. Ba igual mediku izan gure dauenak izango da berantzako “la pera”. Baiña, klaro, hor orduak sartu behar direz eta beste gauza batzuk igual aparte utzi edo lehentasunek imiñi. Ez? Esan: "A, ba momentu honetan gure dot gehixau ein hau eta hau, eta hau apur bet aparte. Ya dotorren urtean ikusiko dou".
- Olatz: Bizitza antolatzeko modu bat da azkenean, ez? Eta nik uste dut, ba, edozein... batez ere talde... bueno, talde-ekimenetan sartzen zarenean... Ze norberaren hautua baldin bada, esan nahi dut, bueno, niri igeri egitea gustatzen zait, baino konpetitu gabe; esan nahi dut, bueno, ba, entrenatzeagaitik nik erabakitzen dut bi aldiz joan, behin joan... Baina ya talde-dinamika bat, neurri batean, edo sortzen duenean, ba, bueno, hor konpromiso hori –esaten genuena– eskatzen duenean, ba, badakizu zure bizitza eta zure agenda eta zure urtea antolatu behar duzula horren inguruan. Eta, normalean, ba, izan daitezke kasu askotan nahiko urte... urteak nahiko berdinak edo kursoak nahiko berdinak. Guk egia da ba normalean urtean baditugula ekitaldi batzuk...
- A.: Finkoak.
- O.: ... finkoak direnak eta, orduan, ba, bueno, gutxi gorabehera badakizu "Bueno, ba, maiatzean igual pixka bat okupatua egongo naiz ze juntatzen dira 3 ekitaldi" eta ez dakit zer, ba, bueno. Baina... bueno, ba horixe: bizitza antolatzeko modu bat da eta azkenean, ba, bueno, ba, neurri batean ere badakigu bizitzako etapa bat dela. Ez? Osea, gu oso gaztetatik hasi giñen baiña badakigu...
- A.: 40 urtegaz ez dogula segituko jantzan.
- O.: Hori da.
- A.: Eta asko, adibidez, nik berez lesiño bat dekot belaunean eta esaten dot: "Bueno, nik momentuz eingo dot jantzan, ya ezin dotenean, ba, bueno, aillegako da, ez? Ez naz ibiliko hor pentsatzen... Ze, azkenean, helduko da momentu bat esango dotena "Bueno, ya; ein dot jantza ya urte askoan" eta... beste gauza bat hartuko dozu, ez? Azkenean...

2. Politika

2.1. Bilbo bonbardatzean babeslekura gordetzera

- **Hizlaria(k)**: Madariaga Agirre, Julen

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Eider
- **Erref**: BIL-001/005
- **Iraupena**: 0:03:59. **Hasi**: 00:10:45. **Bukatu**: 00:14:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: 'Cafe Iruña'ren gainean jaio eta bizi zen Julen. Bi neskame izaten zituzten; euskaldunak, umeak euskaraz ikas zezaten. Bilbon ziren gerra denboran. Gogoan du bonbardaketa eguna. Indabak jaten ari ziren. Hegazkinen hotsa entzutean Albiako babeslekura joan ziren. Arana Goiriren etxearen eta Justizia Jauregiaren ondoan zegoen. Abokatu kideek esan izan diote: "Begira Julen, predestinatua hengoen".

Transkripzioa
- Bilbo setiatuta-ta egon zanean, zuek Bilbon zendetan gerra denporan?
- Bai, bai. Badut... igual, zea, [dana erran bihar]... bueno, hori liburuan ere agertzen da, ezta? Gerran denboran Bilbon giñen. Bilbon, Bilbon, e! Eta oso leku... seguraski hik ezautzen du edo, beharbada, Eider, Eiderrek ere bai, ba zeren eta Bilbo oso famatua da eta kanpoko... kanpoko jendea ere Euskal Herriko baiña ez bilbotarra baizik eta giputzak edota... etortzen zanian. kafetegi hori oso ezaguna da ta Iruña du izena. Ba Iruña gaiñean sortu nintzen ni. Han ekarri... –zera– ninduen amak mundura, ezta?, bigarren estaian. Eta gerran denboran, noski, ba, edozein lekutan munduan gerra dagoenean, ba gosetea ere bai izaiten da. Bueno, gehiago edo gutiago, baina... Eta aita konpondu zen – bakoitzak egiten zuen ahal zuena ezta?– Gernikako... konpondu zen Gernikako basetxe batekin eta, orduan, hangoek inddabak eta hau eta bestea eta zerrikia seguraski eta, bueno, auskalo, eta gauza asko akoplatu edo, zera, akopio egin edo ta. Eta noizbehinka aitak edo ekartzen zioten edo bera joaten zen bila Gernikara, ezta? Eta, gerla zelako, igandeetan soilik baginduen jateko inddabak. Biziki maite nituen nik. Bueno, nik eta, bueno, anaia guziak.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Inguruko baserriak

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Bilbao, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: BIL-006/002
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:03:25. **Bukatu**: 00:04:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Autopista egin eta zenbait baserri bota zituzten. Bestela ere, baserriak zituzten inguruan umeak zirenean.

Transkripzioa
- [...] zuen inguruen?
- Garbiñe: Bai, hemen aurrien.
- Karmele: Egon zien...
- G: Hor bihien be bai.
- K: Be bai, baie autopistie in gaidxienien hemen, orduen bota gaidxiezan, hainbet baserri.

- Eta izenakaz-edo akordetan zara?
- K: Ixenak?
- Bai, baserrien izenak.
- G: Ortxikoko edo Orzekauko, hori [...]. Eta bestie...
- K: Han behien Zubitxueta, zubi... zubitxu bi dauz, ta Zubitxueta. Ta han osteirau beste baserri bet egon zan, beste bi, baie ez dait zelan geittuten dotsien.
- Baia horreek ja ez dauz, ezta?
- K: Ez, ez, ez, ez, lumengau zien hainbet baserri hemen ein orduen hau autopistiau.
- G: Hemen aurrien, hor egon zan etse bat, baie bota geidxien, pasetako autopista Arabarantza.
- A, Biturikoa.
- K: Bai.

3.2. Komuna etxe kanpoan

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Bilbao, Garbiñe; Kortajarena Bilbao, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: BIL-006/017
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:23:40. **Bukatu**: 00:24:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena**: Komuna etxe kanpoan zuten, etxetik irten behar izaten zuten komunera joateko. Ura etxera ekarri zutenean, dutxa moduko bat egin zuten bertan.

Transkripzioa
- Garbiñe: Guk euki giñun hemen lehenengo eskusaue esaten zana hor balkoien at... hor, hortxe. Hor ikusten da markie. Eta egon zan, hori...
- Karmele: Kanpora urten biher joateko hara.
- G.: Eta ez zan egon... Eskusaue egon zan lehenautik. Eta gero [...] ura ekarri geixen etxera, korrientie, sueterako, eta han ifin geixen seboieta edo... dutxa.... seboieta bat, eta urek salida bat emon dotsien azpittik, ba hori. Han egon zan kuadradotxu bet ta inodoroa, eta gero, “cebolleta” ganien. Eta dana bustitzen zan. Eta ezin sartu iñor bez ez ezebez. Ze izango zan metro... metro eta... Balkoien ee... Hori zelan esaten da “anchura”?
- K.: Zabalerea.
- G.: Zabalerea. Ba hori, balkoien zabalerea. Eta gero, ba justo-justo.

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. Maistra palentziarra zuen

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Bilbao, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: BIL-006/003
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:04:28. **Bukatu**: 00:05:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Eskola bat zegoen auzoan bertan. Bertako maistra palentziarra zen. Ahizpa eskolan hasi zenean negarrez itzuli zen etxera, umeek ez baitzekiten euskaraz.

Transkripzioa
- Eta orduen hemen baserrien zu umea ziñenean-eta, o sea, hemen baserrien, hemen auzoan, zu umea ziñenean-eta, egon zien euskaldunek-eta bertakoak?
- Karmele: Hemen?
- Bai.
- K: Nire maixie, maixie andrazkoa, maixue, Palentzidxakoa ixin zen!
- Ta non egon zan eskolea, ba?
- K: Hor, ederra, eskola ederra egon zan.
- Hemen auzoan egon zan?
- K: Bai, hortxe, Buidxan.
- Garbiñe: Hor, Buidxan.
- K: Bai.
- G: Oin "centro cívico municipal" da.
- A, bale. Eta horra joaten ziñen zu eskolara?
- K: Bai.
- Ta maistrea?
- K: Palentzidxakoa. Ta nire aiztie oin Galdakon bixi de, urte bi zaharrau da ni baiño, eta ha hasi zenien eskolara, etorri zen etsera... ni ez naz akordetan, ezta? Baie esaten gaidxiena aittek eta amak eta. Negarrez etor zen, ez doala gehidxau bera, ze Buidxako... Buidxako neska-mutillek ez dakidxiela berbaz. Erderaz eitten gaidxien ta berak ez gaidxen entzun iñoz be seun trazie.
- Ai, koitedea, koitedea.

4.2. Suaren inguruan esertzen ziren neguko gauetan

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Bilbao, Garbiñe; Kortajarena Bilbao, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: BIL-006/021
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:29:43. **Bukatu**: 00:30:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Suaren inguruan esertzen ziren denak neguko gauetan. Ipuinak kontatzen eta kantuan aritzen ziren orduan suaren bueltan.

Transkripzioa
- Eta sutean, orain labadorea eta holango gauzek dagoz, baina lehen zer? Zer egoten zan sutean? Harrie bai, harrie egongo zan, ez?
- Garbiñe: Harrie bai.
- Karmele: Harrixe bai, klaro.

- Baina ez oraingo modukoa.
- K.: Bai, hor egoten zan sue, ta gero gaubetan danak, neguen, karo kalefaziñorik ez zan egon, eta han danok inguruen.
- G.: Suen inguruen.
- Zetan, ba, kontuek kontetan edo?
- K.: Bai.
- G.: Bai, hotza kenduten.
- Eta zer, ipuinek-edo kontetan eutsuezan?
- K: Ipuinek eta kantau be bai. Gure aittek asko kantetan [gaitzen].
- Eta akordetan zarie kantakaz?
- K.: Ui…
- Batonbat.
- K.: Oin hasten gare pentsetan eta ez [dakiu], ez garez akordetan.
- G.: Honek jakin daure gehixao, baiña nik gitxi.
- Eske zu gazteagoa.
- K.: Eske hau estudixetan be hasi zen.
- G.: Joe baiña hori...

4.3. San Juan sua eta abestiak

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Bilbao, Garbiñe; Kortajarena Bilbao, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: BIL-006/028
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:39:58. **Bukatu**: 00:41:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: San Juan bezperan sasiak mozten zituzten, sua egiteko. Suaren inguruan ere kantuan aritzen ziren, Karmelek abesti haietako bat abesten du.

Transkripzioa
- Garbiñe: Eta San Juaneko suen be bai, ezta?
- A bai? Zelan zan hori, ba, San Juanetakoa?
- G.: Hor gurutze esaten doguna, hor […] azpixen eta […] sasixek garbittuten zan sasixek ez ziran biharrenak edo...
- Karmele: Sasixek ebaitzen zien. Eta siketuten zien.
- G.: Eta siketuten zien, aukitteko eitteko sue.
-K.: Ta gero San Juan gaubien hor efintten zin kanpoan ta sue emoten dakon ta kanta. Ta gero: “San Juan dabil soluetan, goikoetan ta behekoetan, arto-garixek gobernetan”.
- G.: [Gero] " [San Juan bagile]” edo ez dakit zelan zan.
- K.: “Denpora galantea, zapoak eta subiek erre, artoak eta garixek gorde.”
- Guk be hori kantaten dou, e!
- G.: Bai, klaro, ordukoak geratuten dira gero.
- Hori bezperan, ezta?
- G.: Bai, gaubean.
- K.: Bai, bai.
- G.: San Juan bezpera gaubean.
- K.: On eitten dou San Juan kantau barik.
- Sua egiten dozue oindiño?
- K.: Guk bai, betik.

- Lehen danak ingo zeurien?
- G. eta K.: Bai, bai, bai.
- Eta hori zetako da, ba, suena?
- K.: Ez dakit nik hori zegaittik...
- G.: [Zer?] Ba purifika... purifika modure... Sue...
- Garbituteko edo?
- G.: Bai.

4.4. Ikertzaileak aurkitu zituenekoa

- **Hizlaria(k)**: Aginaga, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: BIL-009/001
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:00
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Eskopeta lepoan hartuta irten da uso-tortolak harrapatzera, bueltaka dabilen auto bat ikusi duenean. Autoan grabazioa egingo ziotenak zeuden: Julio Urkijo eta Rudolf Trebitsch. Beraien euskara idazteko eskatu diote eta horrexetan hasi da.

Transkripzioa
Txomin entzuik gaur jaso jatena. Eguerdi osteko ordu-bijetan urten juat etxetik, eskopetie lepuen duala uso-tortola ondoren, banenbillan, beiñ Pantxiko Muniben solora, eta beiñ Base-Ibarko kantera ganera, eta andik ikusi isen juat automobil bat atzera ta aurrera dabillela, beiñ Munibera ta beiñ Okokire, eta neure buruai esaten egon nok, "ser ete jabillek orrek, hainbeste juen-etorriges?". Ilttie baino geijao etxuat bururetu automobilleko gizon aundiki jakittun arek nire premian daosanik eta nire bille dabisenik gitxiao, ta arra gerotxuago nun datorren ariñ-ariñge eta diedar baten jota laatsako zubi alderaño gisonoi aiñ estu ikusi duanian erantzun jeutxat ba kantera burutik eta juenok neu be estu estuke ser ete daben eta nun esateusten Julio Urkijo jaune eta beste jaun prantxes moduko bat dauela itxaitten zubi barrijen, eta euskeras eskribidu biotela geuk emen berba eitten dogun les, eldu nok ba jaun orren aurrera txapela eskuen duala eta esan jeutset arratsalde on Jaungoikuek emon daisuela eta esan deustenien ser gure daben eta ser egin bier duan juen nok etxera ta ekin jeutsat eskribitten euskeria maitte duan les, euren eta neure gogue betetan eta ori gaittik gaur[ko nire usotie juen dok pikotara. Amaittu juat. Ta neure ipuin antxeko egijau eta agur Txomin urrengo arte Jaungoikuek naibau].

5. Euskara

5.1. Eskolan entzun zuen gaztelania lehen aldiz

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Bilbao, Garbiñe; Kortajarena Bilbao, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: BIL-006/005
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:07:35. **Bukatu**: 00:08:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- **Laburpena**: Ahizpa eskolatik negarrez itzultzen zen etxera, gaztelaniarik ez zuelako ulertzen. Karmelek ere gaztelania lehen aldiz eskolan entzun zuen.

Transkripzioa
- Ta orduen zuk ez zendun jakin erderarik eskolara joan arte?
- Keba, entzun be ez, entzun be ez, hemen etxien...
- Hemen dana euskeraz, ezta? Aitegaz, amagaz, dana euskeraz?
- Bai, dana.
- Ta euki zenduen etxean aitite ta amama ta holan be bai edo ez? Ezeutu dozuez etxean zuekaz biziten?
- Bai, bai, bai, bai ta birramandre be bai. Etxanokoa izen zen. Bai, amandren ama.
- Eta ezeutu dozu zuk, e?
- Bai, bai.
- Eta akordetan zara beragaz?
- Akordetan naz... zeozer, baie bai, zelan egon zan, zelan bastante... igual, ba, nik aukingo neuzen igual, ba, ez dakit, ba, zazpi-zortzi urte edo.
- Hil zanean.
- Bai.

5.2. Txahal eme edo arra

- **Hizlaria(k)**: Legina Zarate, Eugenia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: BIL-015/006
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:11:40. **Bukatu**: 00:12:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Txahala arra edo emea izan nola esaten duten azaltzen du Eugeniak.

Transkripzioa
- Bai, ze hemen ba esaten eutzu txahalari, esaten eutzu ba emia bada beintxia. Eta arra bada txekorra. Eta hortik esate eutzie danak [...] begiratu emia bada urrexe.
- Urrexe.
- Urrexi?
- Urrexe.
- Bai e? Ez dot entzun, nik horrek kontuak ez dakidaz.
- Horregaitik pa, horregaitik hi diferente zertzen dok, hemen Zeberion.
- Zakurra, zakurra, osteien txekorra edo beintxia.
- Bai, bai, ta hori hemen Bizkaien bertan?
- Bai, bai. Ez, ez, ez hemen, hemen bertan.

6. Lanbideak

6.1. Aita udaletxeko behargin

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Bilbao, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: BIL-006/008
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:12:32. **Bukatu**: 00:13:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
  Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aitak eta aitonak baserritik kanpo egiten zuten lan. Aita behargina zen udaletxeko ur zerbitzuetan. Amonak esnea banatzen zuen, eta ondoren amak. Karmele ere ibili zen esnea saltzen, baina zaharragoa zenean.

Transkripzioa
- Orduen esan dostezu aita ta aitite kanpora, beharrean, ezta?
- Bai, bai.
- Eta ama ta?
- Ama joa... ama...
- Esneakaz?
- Amandre lehelengo joa... lehelengo amandre, astotxuegaz, ta honango kantinploratan esnie salduten, baie aukitten gaidxen hori, leku fijuek, eta gero ama.
- Eta gero ama.
- Ta nau be bai joan naz, e, Urazurrutieragaiño.
- A, bai, e?
- Bai, bai.
- Baia zer, umetan edo ja nausiagotan?
- Ez, ez, ja nau bakarrik joaten neintzen.
- Ja nagusiagotan, ezta?
- Bai, bai.
- Akordetan zara zenbetean salduten zan?
- Ke ba, horixe ez!
- Ez, ezta? Zuek zer esaten dozue, litroa edo...?
- Bai, litroa esaten du, bai.
- Bai? Eta azunberdi ta horreek?
- Azunberdi? "Es un cuartillo".
- Bai?
- Bai.

7. Itsasoa

7.1. Esnea angulekin ordaindu

- **Hizlaria(k)**: Kortajarena Bilbao, Karmele
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: BIL-006/010
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:13:42. **Bukatu**: 00:14:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Makina bat angula jan zituen Karmelek umetan, jendeak ezin esnea diruz ordaindu, anguletan ordaintzen baitzuen.

Transkripzioa
- Amandre joaten zanien esniegaz, jente askok be txarto pagetako, ta pagetan dotsien hor, Peñen, Islan geittuten dana. Angulakaz pagetan dotsien! Bai. Makiña bat angula janik gauz.
- Bai, e? Jolin! Ba, oin karuek dire, e!
- Orduen be ez zien merkiek ixingo, baie jentiek ez gaidxen dirurik seun trazie be aukitten. Hombre, batzuk bai, baie beste batzuk, ba...
- O sea ke trukea.
- Bai.
- Beitu, beitu, jolin.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Zein hizkuntza dakizkizu? (101-031/002)

Ama hizkuntza galiziera du. Horretaz gain, euskara, gaztelania, ingelesa eta portugesa hitz egiten ditu.

2. Galizierari buruzko datuak (101-031/004)

Galiziarren %75ak hitz egiten du galiziera, baina kopurua jaisten ari da. Bere inguruan beti erabiltzen du galiziera.

3. Zerk ekarri zintuen Euskal Herrira? (101-031/005)

Lagun asko ditu bertan. Lan proiektua ere amaitzen ari zitzaion, eta bi urteko ikastaro bat egitera etorri zen bertara. Hala ere, Euskal Herrian gelditzea erabaki du eta bost urte daramatza hemen.

4. Lehen egunak Euskal Herrian (101-031/007)

Lehen egunak berezi xamarrak izan ziren Euskal Herrian Davidentzat, baina argi zuen turista moduan ez ibiltzeko euskara ikasi behar zuela, eta hala egin zuen.

5. Galizaleak elkartea (101-031/009)

Hasiera batean Andoain inguruan mugitzen zen. Trintxerpeko galiziar komunitatea ezagutzen du eta nolabaiteko nostalgia ematen dio honek. Beranduago, Bilboko galiziar batzuekin biltzen dira galiziera hitz egiteko eta euskal mundua haien kulturarekin uztartzeko.

6. Euskaldunekin oso harreman ona (101-031/010)

Oso harreman ona du euskaldunekin. Daviden iritziz, oso garrantzitsua da eusaldunentzat euskara kanpotar batek euskara ikasi izana, eta horrek harremanak errazten ditu.

7. "Euskara Jendea" (101-031/012)

Bi urtez "Euskara Jendea" dokumenta egiten aritu zen, eta bertan gauza mordoa ikasi zuen euskararen historiaren inguruan.

8. Zer ematen duzu faltan Galiziatik? (101-031/014)

Galiziera kaleetan zehar entzutea, aitarekin egotea eta itsasoa ematen ditu gehienbat faltan.

9. Zer gustatzen zaizu Euskal Herritik? (101-031/015)

Gehien gustatzen zaizkion Euskal Herriko gauzak, euskara, kultura eta hemengo ohiturak. Esaterako, kalea oso garrantzitsua da euskaldunentzat, eta Davide oso kalezalea da. Bestetik, paisaia ere asko gustatzen zaio. Gustatzen ez zaionaren artean, euskararekiko konpomiso falta edo atxikimendu falta aipatzen ditu.

10. Galizieraz hitz batzuk (101-031/017)

Galizieraz hitz batzuk.

11. "Abraiada" hitza (101-031/019)

Galizierazko hitz gustukoa du Davidek "abraiada".

12. Kanta bat galizieraz (101-031/021)

A Coruñan bizitzeari buruzko abesti bat abesten du Davidek.

13. Galizieraren egoera (101-031/023)

Nolabaiteko lotsa ematen dio zenbaiteri galiziera hitz egiteak, gaztelaniaren azpitik balego bezala. Davidek dio kulturalki ahaldundu behar direla eta harrotasunez erakutsi behar dutela galiziarrak direla. Egoera hau Galiziako Hizkuntza Politikaren ondorio da Davidentzat, gobernuak galizieraren kontra egiten baitu.

14. Hirueleduna (101-032/002)

Ingelesa, gaztelania eta euskara hitz egiten ditu Helenek.

15. Alabarekin ingelesez (101-032/003)

Alabari ingelesa transmititu nahi dionez, berekin beti ingelesez egiten du. Bost urtez ibili zen AEK euskaltegietan, ondoren bere kabuz.

16. Lanagatik Euskal Herrira (101-032/004)

Basogintzarekin loturiko tesia egitera joan zen Madrilera, eta ondoren, Euskal Herrira hurbildu zen lanarekin jarraitzera. Bertan lana eskaini zioten, eta onartu egin zuen.

17. 25 bat urtez Euskal Herrian (101-032/006)

Barakaldora joan zen Helen bizitzera. Bertako kuadrilla ezagutzen zuen, eta beraz, nahiko errazak izan ziren lehen egunak Euskal Herrian. Euskara ikasteak lagundu egin zuen integrazioa.

18. Harreman gutxi etorkinekin (101-032/008)

Oso harreman gutxi du Barakaldon bizi diren etorkinekin, bai Ingalaterrakoekin bai gainontzekoekin.

19. Euskalkia zaila egin zitzaion (101-032/009)

Inguruko euskaldunekin harreman ona du Helenek, baina euskaraz hitz egitean, zailtasunak izaten ditu leku jakin batzuetako euskara ulertzeko, besteak beste, Arratia, Bermeo, Ondarroa...

20. Zer dakizu euskarari buruz? (101-032/011)

Euskara oso hizkuntza zaharra dela badaki Helenek, euskalkiak dituena, eta Frankismo garaian zapaldua izan zena.

21. Zer faltan jatorritik? (101-032/012)

Hasiera batean elikagai zenbait ematen zituen faltan: txokolatea, tea. Puntualtasuna ere aipatzen du hemen, batez ere Madrilen egon zenean konturatu zen Ingalaterran askoz ere puntualagoak direla.

22. Zer gustatu Euskal Herritik? Zer ez? (101-032/013)

Heleni ez zaio gustatzen Gobernuak egingo duela esaten duenaren eta egiten duenaren arteko aldea, euren hitza ez betetzea. Bestetik, gauza asko dira gustatzen zaizkionak, batik bat, paisaia, ingurumena., eta jendearen elkartasuna.

23. Zer egin euskara bultzatzeko? (101-032/015)

Euskara erabiltzea oso garratzitsua da, eta lehen pausua izan beharko litzateke Helenen iritziz. Gainera, euskararen kontrako jarrera dutenei euskara zergatik erabili behar den azaltzen die, integra daitezen.

24. Euskara ondo hitz egitea helburu (101-032/017)

Helburu gisa du euskara gaztelania bezain ongi hitz egitea, eta barnetegi batera joateko ideia darabilkio buruan.

25. Ingelesez hitz batzuk (101-032/019)

Ingelesez hitz batzuk esaten ditu Helenek.

26. Ingelesezko hitz gogokoena (101-032/021)

Hiztegian agertzen ez bada ere, "arazotxo" moduko zerbait litzateke bere hitz gogokoenaren esanahia, umeen arteko liskarren kontestuan aitak asmatu zuena.

27. Aho korapiloa ingelesez (101-032/023)

28. Sindikatutik gazta egitera (101-032/024)

Inoiz ez du lana topatzeko arazorik izan. Sindikatu batean ibili zen lanean denbora batez, eta ondoren, baserriko esnearekin gazta egiten eta saltzen hasi zen.

29. Euskal ohiturak bereganatzen (101-032/026)

Helen etorri zenetik murgildu zen euskararen aldeko zenbait ekintza edo ohituretan, hala nola, Korrika, ibilaldiak (Kilometroak)...

30. Arrazakeria, gutxi I (101-032/028)

Pertsonalki behin izan zuen arrazakeriarekin loturiko arazo bat, bestela ez. Bere iritziz, Euskal Herrian arrazakeria gutxi dago.

31. Euskal ohiturak bereganatzen (101-032/030)

Helen etorri zenetik murgildu zen euskararen aldeko zenbait ekintza edo ohituretan, hala nola, Korrika, Kilometroak, Ibilaldia... (Ingelesez).

32. Arrazakeria, gutxi II (101-032/031)

Pertsonalki behin izan zuen arrazakeriarekin loturiko arazo bat, bestela ez. Bere iritziz, Euskal Herrian arrazakeria gutxi dago. Garai batean, ordea, egon zen arrazakeria gehiago.

33. Sistema integrazioaren aurkakoa da (101-032/033)

Euskarari dagokionez, euskara ikastea gomendatuko lieke Helenek beste etorkinei. Bestetik, uste du guettoetan bizitzeko ohitura handirik ez dagoela Euskal Herrian, eta egotekotan, gizarte arazoa dela, ez atzerritarrena.

34. Inmigrazioa Ingalaterran (101-032/035)

Ingalaterran, batez ere, Asiakoak, Indiakoak, Afrikakoak, eta Europa Ekialdekoak dira etorkinak.

35. Integrazioa zailagoa da emakumeentzat? (101-032/037)

Helenek, pertsonalki, ez du arazorik izan, ziur aski, Europarra eta zuria delako. Baina, uste du Afrikako emakumeentzat zailagoa izan daitekeela integratzea, batetik, emakumeak direlako, eta bestetik, Europatik kanpokoak direlako.

36. Katalana, gaztelania, euskara eta ingelesa (101-034/002)

Lau hizkuntza hitz egiten ditu Jordik: katalana, gaztelania, euskara eta ingelesa.

37. Katalanak 11 milioi hiztun (101-034/003)

Katalanari buruzko datuak ematen ditu Jordik.

38. Norekin hitz egiten duzu katalanez? (101-034/005)

Familia eta lagunekin hitz egiten du katalanez, baina kaleko jendearekin ere bai.

39. Maitasunak ekarri zuen Euskal Herrira (101-034/006)

Bere bikote ohia euskalduna zen, eta Bartzelonan elkarrekin bizi ondoren, Euskal Herrira etortzea erabaki zuten.

40. "Ate guztiak zabalik topatu nituen" (101-034/007)

Lehenengo egunak Euskal Herrian onak izan ziren, oso harrera ona egin zioten euskaldunek Jordiri, batez ere hizkuntza apur bat ezagutzen zuelako.

41. Harreman estua katalanekin (101-034/008)

Harreman estua du Euskal Herrian bizi diren katalanekin, izan ere, elkarte bat sortu dute eta maiz ikusten dute elkar.

42. Jendeak euskara ikastea eskertzen du (101-034/009)

Euskaldunekin harreman ona izan du hasieratik, asko eskertu izan baitiote beti euskara ikasi izana.

43. Kataluniako hizkuntzak (101-034/011)

Eleaniztasuna geroz eta biziago dago Katalunian. Hala ere, hitz egiten diren bi hizkuntza nagusiak gaztelania eta katalana dira.

44. "Euskara fenomeno izugarria da" (101-034/013)

Jordiri asko gustatzen zaio euskararen historia, batez ere, katalunia eta euskara lotzen dituen toponimia kontuak.

45. Donostian zenbat hizkuntza? (101-034/014)

Entzuten dituen hizkuntzak gutxi badira ere, 30-50 bat hizkuntza egongo direla uste du Jordik Donostian.

46. Zer ematen duzu faltan? (101-034/015)

Jordik, batez ere, familia eta lagunak ematen ditu faltan. Bestetik, eguraldia ere azpimarratzen du, eguzkia ere faltan duelako.

47. Integrazioa erraza izan da (101-034/016)

Euskal kultura, ohitura eta hizkuntza ezagutzen zituen Euskal Herrira etorri aurretik, eta gainera, bikotea ere euskalduna zuen. Horrek guztiak integrazio errazago bat izaten lagundu zion Jordiri.

48. Gehiago ezagutu behar dugu elkar (101-034/018)

Eleaniztasuna bultzatzeko eta mantentzeko, elkar gehiago ezagutu eta harremandu behar garela dio Jordik.

49. Pozik egotea eta mundua justuagoa izatea (101-034/019)

Jordiren ametsa pozik bizitzea, duen bizitzarekin gustura bizitzea eta ingurukoen bizitza justuagoa izatea da.

50. Katalanez hitz batzuk (101-034/020)

Jordik oinarrizko hitz batzuk esaten ditu katalanez.

51. "tendresa" (101-034/022)

Samurtasuna esan nahi du "tendresa" hitzak, eta Jordiren hitz gustukoena da bai fonetika aldetik eta baita esanahiaren aldetik ere.

52. Lan aukera gehiago Euskal Herrian (101-034/024)

Lan bila ari zen Jordi elkarrizketa egin zen unean. Bere irudipena zen Euskal Herrian lana topatzea errazagoa zela, egoera sozio-ekonomikoa ere hobea delako. Euskara jakitea ere abantaila bat da lana topatzeko orduan.

53. Arrazakeriarik ikusi duzu? (101-034/026)

Begi bistakoa ez bada ere, arrazakeria sozio-kulturala orokorra dagoela dio Jordik.

54. Etorkinak, ezin integratu? (101-034/028)

Etorkinak eta etorkinak daude, Jordik bere burua salbuespentzat du. Gogoz kontra etortzen diren etorkinen paperean jarri eta haien integrazioa erraztu behar dela dio, haien kultura ezagutzeko interesa izan.

55. Mota ezberdineko etorkinak daude? (101-034/030)

Jatorriaren araberako etorkin motak daudela dio Jordik, ezin konpara dezakeela bere burua (Bartzelonatik etorrita) Afrikatik etorri den etorkin batekin.

56. Inmigrazioa Katalunian I (101-034/032)

Askotan inmigrazioaren kontzeptu okerra dugula dio Jordik, etorkinengan pentxatzen dugunean askotan Europaz kanpoko norbaitengan pentsatzen dugula, eta, adibidez Katalunian, italiarren presentzia handia dela. Hizkuntza, komunitatea eta beste zenbait gai interesgarri lantzen ditu pasarte honetan.

57. Inmigrazioa Katalunian II (101-034/033)

Askotan inmigrazioaren kontzeptu okerra dugula dio Jordik, etorkinengan pentxatzen dugunean askotan Europaz kanpoko norbaitengan pentsatzen dugula, eta, adibidez Katalunian, italiarren presentzia handia dela. Hizkuntza, komunitatea eta beste zenbait gai interesgarri lantzen ditu pasarte honetan.

58. Katalanaren egoera (101-034/035)

Katalanaren egoera geografikoki oso ezberdiña da. Jordirentzat ez da egoera ona, gaztelaniaren eta frantsesaren presioa jasaten baitu, eta mendekotasun horrek asko ahultzen baitu. Instituzioen papera eta jendearen konpromisoa azpimarratzen ditu.

59. Jordiren aurkezpena (101-189/001)

1985. urtean jaio zen Jordi, Bartzelonan. Orain Bilbon bizi da, Alde Zaharrean. Katalana, euskara, gaztelania eta ingelesa. Politika zientziak ikasi zituen. Mendira joatea, zinema eta musika ditu gustuko.

60. Zergatik Euskal Herrira? (101-189/002)

Arrazoi nagusia bikote ohia euskalduna izatea zen. 27 urte zituen Euskal Herrira etorri zenean.

61. Zer gustatzen zaizu Euskal Herritik? (101-189/004)

Paisaia, kultura, hizkuntza gustatzen zaizkio, bereganatu egin baititu. Jendearen izaera ere gustatzen zaio, jende oso soziala dagoela. Gutxiena, aldiz, eguraldia.

62. Zergatik euskara ikasi? (101-189/005)

Bere bikote ohia eta ingurua euskalduna zelako ikasi zuen batez ere. Gainera, bikoteak katalana ikasi zuen, eta trukean euskara ikasten hasi zen Jordi.

63. Bartzelonan bertan hasi zen euskara ikasten (101-189/006)

Han hasi eta oinarrizko maila batekin etorri zen Euskal Herrira.

64. Euskara hutsetik ikasten hastea zaila da (101-189/007)

Zaila bada ere, ordainsaria handia da.

65. Inguruan egunerokotasunean erdaraz (101-189/010)

Jordiren adineko gehienak euskaldunak dira bere inguruan, baina Jordi da euskara gehien egiten duena.

66. "Euskararekin ate asko zabaltzen dira" (101-189/011)

Ez da bertakoa sentitzen, katalana sentitzen da. Aldi berean, ordea, euskalduna ere bada. Bestetik, integrazioa bere kasuan erraza izan da, bikote ohia bertakoa baitzen.

67. Jendea eta eguraldia (101-189/012)

Jendea eta eguraldi ona faltan Kataluniatik.

68. "Kontua da euskara behar bat bihurtzea" (101-189/015)

Batzuek hizkuntza aniztasunak euskara arriskuan uzten dutela uste dute, baina Jordi ez dago ados ideia honekin.

69. Katalanen kolektiboaren parte (101-189/017)

Ekintza sozialetan aktiboki hartzen du parte.

70. "Euskara paralizaturik dago, ez dago aurrerapenik" (101-189/019)

Euskara geroz eta gehiago menperatzen da, baina egunerokotasunean erabilera ez da hobetzen.

71. Zergatik etorri zinen Euskal Herrira? (101-190/002)

Hasiera batean bi urte pasatzeko asmoz etorri zen, ikastera. Lagun batzuk bertan dituenez, eta bertako kultura gustatzen zaionez, bertara etortzea erabaki zuen. Bost-sei urte daramatza Euskal Herrian.

72. "Kalea oso garrantzitsua da" (101-190/003)

Hizkuntza eta bizimodua asko gustatzen zaizkio, kalean bizitza asko egiten baita. Eguraldia, berriz, ez zaio gustatzen.

73. "Euskara barik turista moduan ibiliko nintzateke" (101-190/004)

Gauza normala iruditu zitzaion euskara ikastea. Euskalduna izan nahi zuen, bertako jendea bezalaxe. Hemengo bizimoduan parte hartzeko euskara garrantzitsuena dela dio.

74. "Etorkinak ere euskaldunak gara" (101-190/005)

Euskaraz dakiena da euskalduna, jatorria jatorri.

75. Euskara ikastea erraza baina garestia (101-190/007)

Euskara ikastea zaila dela mito bat da berarentzat: zaila baino garestia dela dio.

76. "Euskaraz bizitzea ez da erraza" (101-190/009)

Bilbon euskaldun moduan bizitza aurrera eramatea zaila dela dio.

77. Integraturik sentitzen al zara? (101-190/010)

Hizkuntzari esker oso integraturik dagoela sentitzen du, edonora joan daitekeela.

78. Familia eta galiziera ematen ditu faltan (101-190/012)

Hizkuntzak mundua ikusteko moduak dira.

79. Pozik eta lasai bizitzea helburu (101-190/013)

Dirua bidaiatzeko eta kulturak ezagutzeko erabiliko luke.

80. Musika izan zen Euskal Herriarekin lehen lotura (101-190/015)

Negu Gorriak taldearekin hasi zen euskal musika entzuten.

81. Antzerkia eta euskal dantza (101-190/016)

Euskal dantza ikasten hasi da duela gutxi.

82. Asteburuetan: poteoa, natura eta turismoa (101-190/017)

Asteburuko planak.

83. Ligatzea erraza da (101-190/018)

Hizkuntza ikasteko erraztasunak egon beharko liratekeela dio. Bertako mutilak lotsatiak ei dira.

84. Erdara nagusi aisialdian (101-190/020)

Hizkuntza erabilera testuinguruaren arabera aldatzen dutela dio. Bertako jendeak gaztelaniaz hitz egiteko joera handia ei du, eta amorrarazi egiten du horrek.

85. Irainak gaztelaniaz (101-190/022)

Umorea adierazteko, orokorrean, euskara erabiltzen du. Hiketa, ordea, ez du erabiltzen.

86. "Hizkuntzarekiko planteamendua aldatu behar dugu" (101-190/023)

Euskarari buruzko iritzia.

87. Zein da euskararen etorkizuna? (101-190/025)

Euskararen egoera aldatu behar dela dio, instituzio arloan batez ere.

88. Aitaren familiak Txorierrin du jatorria (BIL-001/001)

Agurrak. Izen-abizenak. Sei belaunaldiz bizi dira Madariagatarrak Bilbon. Aitaren partetik, Txorierrin dute jatorria, Larrabetzuko Elexalden. "Parroquia Juradera" izandako lekua da. 1488raino heldu ziren familiaren jatorriaren araketan. Konbentzioko Gerran frantsesek eliza eta artxibo guztiak erre zituzten.

89. Gerra irten zenean familia osoa Txilera (BIL-001/004)

Familia osoa, gurasoak eta bost anai-arreba Txilera joan ziren gerra sortu zenean. Eta eurekin batera, Donostiako lehengusuak. Tartean "Txiki" marrazkilariaren familia.

90. Bonbardaketei ihesi, lehenik Algortara, gero Iparraldera (BIL-001/007)

Bonbardaketei ihesi, Algortan etxe bat hartu zuten, Villa Numancia. Baina laster ebakuatu zituzten emakumeak eta umeak. Bera "Goizeko Izarra" izeneko itsasontzi batean eraman zuten Baionara. Itsasadarretik irteteko komeriak. Gerraontzi frankistak zelatan zeuden eta ingelesek bidalitako gerraontzi bati esker egin ahal izan zuten bidea. 1937ko martxoa zen.

91. Txileko aitona frankistak ordaindu zien barkuko txartela (BIL-001/009)

Sei hilabete Angelun egin eta Txilera joan ziren, Arroxelatik irtenda. Nahiz eta familiak dirua izan bankuetan, pezeta balio gabe geratu zenez, Txileko aitona frankistak ordaindu behar izan zuen bidaia.

92. Aitak arazoak Txilen sartzeko "rojo separatista" omen zelako (BIL-001/010)

"Oropesa" zuen barkuak izena. Gero II. Munduko Gerran erabili zuten tropa amerikarrak Europara ekartzeko. Alemanek hondoratu zuten. Aitak ez zuen bisaturik Txilen sartzeko "rojo separatista" omen zelako. Panamako Kanalean egindako tramiteak. Frankistek propaganda aparatu handia zuten. Europako erregimen faxistak eta eliza zuten alde.

93. Maristen eskolan egur asko hartutakoa (BIL-001/011)

Aitonaren etxaldean eman zuten lehen urtea Txilen. Gero, hirira aldatu ziren. Oroitzapen onak gogoan gelditzen ei dira; txarrak, desagertu. Maristetan sartu zituzten lau anaiak. Fraideak espainiarrak eta italiarrak ziren, oso eskuindarrak. Egur asko hartutakoa da eskolan. Eurak ere elementu ederrak

omen ziren. Aita oso liberala eta errespetutsua zen. Herritik alde egin zutenean, negar egin zuten hurbileko guztiek.

94. Aitona, autonomia estatutuaren idazleetarikoa (BIL-001/013)

Aitona, abokatua, Euzko Ikaskuntzakoa zen. Inork eskatu gabe hasi ziren euskal estatutu bat prestatzen 1928-29an. 1931an eskatu zieten autonomia estatutu bat idazteko. Lanak aurreratuta zituzten ordurako. Jose Antonio Agirreren eta haren familiaren lagunak ziren.

95. Frantzian kartzelan egon ondoren, debekatu egin zioten Ipar Euskal Herrian bizitzea (BIL-001/015)

Kartzela ez da errefuxiatuei ezartzen zaien zigor bakarra. Kartzelan egon ondoren, debekatu egin zioten Ipar Euskal Herrian bizitzea eta lan egitea. Dordoña ibaitik iparraldera joatera behartua zegoen. Bilbora itzultzea erabaki zuen orduan.

96. Txiletik Buenos Airesera hegazkinez (BIL-001/018)

1946an Bilbora itzuli ziren anaia Jon eta biak. Aita aldare baten dauka. Aitak Txiletik Buenos Airesera lagundu zien. Hegazkinez joan ziren. Beste aukera trena zen, hiru egun behar ziren. Hegazkina txikia zen, aire presurizaturik gabea. Buenos Airesera heltzeko abenturak. Burua lehertu beharrean, belarrikomina jasan ezinik.

97. Buenos Airesetik Bilbora itsasontziz (BIL-001/020)

Buenos Airesetik Bilbora itsasontziz etorri ziren Aznar konpainian. Hilabete eman zuten. Denetarik zen "gutarren" artean, abertzaleak eta españolistak, gerra egindakoak gainera. Baina biziki ondo tratatu zituzten itzuli zirenean.

98. Baionako Katedraleko gose-grebaz (1974) (BIL-001/021)

Gose-greba famatu bat egin zuten Baionako Katedralean, 1974an Telesforo Monzon, Txillardegi, Julen bera eta beste berrogei bat lagunek. Polizia bonba negar eragileekin sartu zen. "Madariaga, besterik ez dugu nahi", esaten omen zuten. Ikusita jendea itotzen ari zela, entregatu egin zen. Bera eta zakurra; honek aurre egin zien poliziei; dena filmatua dago.

99. Marc Legasseren interpretari-lan bitxia poliziaren eta grebalarien artean (BIL-001/023)

Marc Legasse-k organo kontzertuak ematen zieten gose-greba garaian Baionako Katedralean. Eta horretaz gain, itzultzaile-interpretari lanak egiten zituen polizia eta grebalarien artean, oso modu bitxi batez.

100. Fresnes-ko ospitalean maoista batekin (BIL-001/025)

Konpromisoa hartu zuten grebarekin jarraitzeko eramaten zituzten lekuan. Bera Baionako kartzelara eraman zuten lehendabizi. Hotz handiak eta grebak gaixotuta, Pariseko Fresnes-era eraman zuten gero, han ospitalea zegoelako. Ospitalean, tranpako gose-greba egiten ari zen maoista bat ezagutu zuen.

101. Irakasle mutxurdin gaizto batek Institutuan gorriak ikustarazi zizkion (BIL-002/001)

Txiletik hamalau urterekin itzuli eta Institutuan hasi zen Bilbon. Oso oroitzapen txarra du. Ameriketan ez zen latina eta greziera erakusten. "Mutxurdin" hitzaren etimologiaz. Bazen Institutuan irakasle mutxurdin bat, gaiztoa, beltzak ikustarazi zizkiona. Bazekien "rojo separatista" ginela, eta ikasi arren, 0 jartzen zion.

102. Julen erraldoia mutil koskorren artean Institutuan (BIL-002/003)

Ikasgai batean "0" izanez gero, ezin zen bataz bestekoa egin. Bizpahiru urte galdu zituen horregatik. Getxoko Institutuko argazki zaharretan ikusten dira mutil koskorrak praka motzetan, eta erraldoi bat: Julen.

103. "Oztopo izan dena abantaila bilakatzen da batzuetan" (BIL-002/005)

Errebalida Espainian egin behar izan zuen, Euskal Herrian ezin baitzen. Oviedon galdutako ikasturteak berreskuratu zituen. Oztopo izan dena abantaila bilakatzen ei da batzuetan.

104. Ez zegoen neska bakar bat ere bere klasean (BIL-002/007)

1952an ez zegoen Deustun bere klasean neska bakar bat ere. Orain berriz, gehiengoa izango dira

105. Aita Urrutia jesuitak jakin gabe lagundu zuen Ekin-ETA sortzen (BIL-002/008)

Aita Urrutia, Jatabekoa izatez, administratiboko irakaslea Deustun. Oso jakintsua. PNVkoa zen pentsamenduz. 1978ko estatutua idazten lagundu zuen. Haren bidez ezagutu zuen Julenek Gurutz Ansola, azpeitiarra. Julenek "abogado economista" ikasi zuen. Urrutiak bere aldetik ezagutzen zituen Jose Manuel Agirre, Gurutz Ansola eta Julen. Ikusi zuen hirurak abertzaleak zirela, eta hirurak bildu zituen. Ez da oroitzen zein momentutan batu ziren Benito del Valle eta abarrekin.

106. Nola ezagutu zuen Madariagak Txillardegi (BIL-002/009)

Txillardegi aspalditik ezagutzen zuen Julenek, txiripaz. Amak ahizpa zuen ezkonduta Donostian, eta oporretan Julen eta anaia Jon sarri joaten ziren hara. Antiguan ezagutu zuten elkar, 16-17 urte zituela. Albisu ere bai. Nork erran lau edo bost urte geroago Ekin eta ETA bezalako erakundeak sortuko zituztenik?

107. Madariagak eta Txillardegik erdaraz elkarrekin (BIL-002/011)

16-17 urterekin erdaraz jarduten zuten Madariagak eta Txillardegik, ez baitzekiten euskaraz. Zertxobait bazekien Julenek, umetan neskameekin ikasita.

108. Gaztelaniaz Ameriketako doinuarekin (BIL-002/012)

Ameriketara bost urterekin heldu zen. Han ikasi zuen gaztelania, hangoa eta hango doinuarekin.

109. Xabier Peñarekin eta Alfontso Irigoienekin ikasi zuen euskaraz (BIL-002/013)

Xabier Peñarekin eta Alfontso Irigoienekin ikasi zuen euskaraz Bilbora itzulitakoan. Asko estimatzen zuen Julenek Alfontso (hau ere Ekin-en sortzaileetarikoa, bertsolaritzaren sustatzailea izateaz gain). Txilera joatean ahaztu zitzaion zekien euskara apurra.

110. Uda Nabarnizen mintza-praktika egiteko (BIL-002/014)

Ez du oroitzen zein maiztasunekin ziren euskarazko klaseak. Nabarnizen eman zuen uda oso bat euskara praktikatzen. Herri-euskara, jakina, bizkaiera.

111. Ezagutu zuen Bilboko lehen ikastolen sorrera (BIL-002/015)

Bizkaiko ikastolen hastapenak ezagutu zituen. Xendra Kalean (Sendeja), erdi klandestinoki, batez ere anaia Nikola eta haren emaztearen etxean. Horrela, Bilboko hainbat etxetan, eta gauza bera Donostian eta abar. Lau edo bosti ume andereño batekin.

112. Ameriketan bizitza teknikolorez, Bilbora heldu eta zuri-beltzean (BIL-002/018)

13-14 urteko gazteentzat berdintsuak dira zenbait bizipen munduko parte gehienetan. Ameriketan bizitza teknikolorez ikusten zuen, Bilbora heldu eta zuri-beltzean. Hiri zikina eta abandonatua zen. Autoak han zernahi mota eta koloretakoak, hona heldu eta denak beltz edo gris, eta ttipiak. Jendearekin hitz egitean, tristura, beldurra sumatzen zen. Kulturaz eta politikaz ezin zen hitz egin. Herria etsita, burumakur.

113. Hamahiru urteko mutiko baten ametsak (BIL-002/019)

Aitak Buenos Airesen argitaratzen zen Ekin bildumako liburuak erosten zituen, eta berak irakurri. Hamahiru urterekin bazuen bere helburua: Euskal Herrira itzuli behar zuen eta zerbait egin. Fededuna zen garai hartan, eta bi gauza eskatzen zizkion jainkoari: ez hiltzea Euskal Herria berriz zapaldu gabe, eta neska batekin jo gabe.

114. Kanarietan eskala gose-denbora gordinean (BIL-002/021)

Etorrerako bidaian Kanarietan egin zuten eskala. Barkua gariz zamatuta zekarten. Harrituta geratu ziren jendea zein argal zegoen ikusita. Gose-denbora zen.

115. Bilbora iritsi zireneko zirrarak (BIL-002/023)

Gogoan du nola iritsi ziren Bilbora. Abran itsas armadako ontziak. Itsasadarretiko sarrera oso hunkigarria izan zen Nikola anaiarentzat eta bientzat. Zirrara ikaragarria familia kideekin elkartu zirenean. Jendea burumakur eta etsita zegoen.

116. Hiru nazionalitate ditu Madariagak (BIL-003/002)

Bi osaba guztiz españolistak zituzten Bilbon. Txiletik itzuli zirenean Jon eta biak, ondo hartu zituzten. Egunak igarotzen zituzten euren etxean. Gero Txilen alderantzizkoa gertatu zitzaien. Fresnesen greba egin ondotik Txilera bidali zuten, Orly-tik hegazkinez. Hiru nazionalitate ditu: Txiletarra, frantziarra eta espainiarra.

117. Frankismoaren aurkakoak elkarretaratzen (BIL-003/005)

Egonezin handia zegoen sasoi hartan (1945-50) zenbait zirkulutan. Frankismoaren aurkakoak elkarretaratzen joan ziren. Bazen ezkerreko jende ez abertzalea, eta karlista "onargarriak", gero eurak... Elkar ezagutuz joan ziren poliki-poliki. Berrogei bat lagun izango ziren orduko bilkuretan.

118. Abertzaleak elkar ezagutzen eta biltzen (BIL-003/006)

Azkenean dozena bat lagun geratuko ziren, galbahea pasatu ondoren. Barandiaran, Benito del Valle, Txillardegi, Alfontso Irigoien... Julenek uste du Alfontso apur bat minduta geratu zela eurekin, taldeko norbaitek erabili egin zuelako zenbait eginkizunetarako. Ikasle ez zen bakarra zen. Ekin, barne aldizkariaren izena zen lehenik

119. Ekinen sorrera 1952an (BIL-003/008)

Benito del Valle, Alfonso Irigoien, Txillardegi, Jose Manuel Agirre, Barandiaran... geratu ziren taldean. Eta erabaki zuten zerbait ezberdina egitea, gure herria hiltzen ari zela ikusita. Eta astero biltzen hasi ziren. 1952-53 ikasturtean sortu zen Ekin.

120. Lehen helburua: independentzia (BIL-003/009)

Sei urtez harremanetan ibili ziren Ekin gisa PNVrekin eta abarrekin. Orduan eta orain lehen helburua: independentzia. Horretan ez da batere diferentziarik orduko Ekin eta oraingo ETAren artean. Eta barne demokrazia handia zegoen urte haietan. Dena eztabaidatzen zen.

121. EAJrekin harremanak ETA sortu aurretik (BIL-003/010)

ETAren lehen asanblea 1962an izan zen. PNVko Ajuriagerrarekin ("El Almirante") eta beste batzuekin harremanak izan zituzten elkarlan posible bati begira. Fitxa polizialik gabeko bi edo hiru militante taldean integratzea proposatu zioten baina jelkideek ez zuten onartu. Amezaga, Gallastegi, Isasi... jelkideak.

122. Ekin eta ETAren hasierako bilera lekuak (BIL-003/012)

Barandiaran, Benito del Valle eta bere etxean biltzen ziren. Barandiaranena Elkano kafetegiaren parean zegoen (hemen biltzen ziren Bizkai Buru Batzarrekoak: Ajuriagerra, Retolaza, Artetxe eta abar).

123. Klandestinitatean nola ibili jakiteko esku-liburua (BIL-003/013)

Alderdi komunistatik, Austriatik, Vaticanotik eta abar dokumentazioa bildu zuten klandestinitatean nola ibili ikasteko. Gero esku-liburutto bat atera zuten, "normas de seguridad", erdaraz. Txillardegi, Alfontso eta Gurutz Ansola kenduta, besteak euskaraz ikasten ari ziren; eta ikasi zuten gehienek.

124. Bizirik geratzen diren ETAko hiru sortzaileak biltzekotan (BIL-003/014)

ETAren sortzaileetarik hiru daude bizirik: Jose Manuel Agirre, Iñaki Larramendi eta bera. Agirreri proposatu zion hirurak elkartu, memoria freskatu eta hirurak sorrerako gauzez ados daudenaz idaztea eta sinadura jartzea. Egitekotan dira.

125. Hainbat goitizen erabili zituen klandestinitatean (BIL-003/015)

Etxean ditu ETAren lehen asanbladako aktak. Oso laburrak dira. Hainbat izengoiti erabili zituen klandestinitatean. Izena aldatu zalea zen.

126. Belloc-eko Monastegian (Bastida) egin zen ETAren lehen Asanblada (BIL-003/017)

Belloc-eko Monastegian (Bastida) egin zen ETAren lehen Asanblada, 1962an. Dozena bat lagun izango ziren. Fraideekin bazkaltzen zuten. Erakundea poliki-poliki handitzen joan zen.

127. Militanteak formatzeko materiala sortzen (BIL-003/018)

Lan asko egin zuten formazio-materiala sortzen. Makinaz asko idatzi behar izaten zuten. Eurek lantzen zituzten gaiak: Historia: prehistoria, erdi aroa, Karlistadak, Arana Goiri... Foruak, erakundeak (diputazioak etab.), ekonomia, frankismoa, Falange Española, irakaskuntza... (azken biak Julenek berak egin zituen). Eurak lehenik, eta gero militanteak formatzeko.

128. Bilkura zabalak eta itxiak (BIL-003/019)

Bilkura itxiez gain, zabalak ere egiten zituzten: konfiantzako pertsonei deitzen zitzaien taldera, eta informazioa ematen zitzaien, beti esanez inor eta ezer ez zegoela atzean. Beti isilean. Lau edo bost lagun biltzen ziren, sekula ez zazpi edo zortzi baino gehiago, segurtasunagatik.

129. Militante berriaren lehen pausoak (BIL-003/021)

Militanteak lortzea ez zen erraza. Ikastaroa egiten zuten zazpi edo zortzitik bat edo bi bihurtzen ziren militante. Orduan esaten zitzaien zer zegoen atzea. Harri eta zur geratzen ziren. Eginkizun bat izendatzen zitzaion bakoitzari. Gero, bigarren ikastaldi batean parte hartzen zuten. Lehen gaia "normas de seguridad" zen.

130. Hiru eredu: Tunisia, Israel eta Irlanda (BIL-003/022)

Askapen nazionalean hiru eredu zituzten: Tunisia (gero Burgiba alu bat izango zen), Israel, batez ere hebraieraren kontuagatik, eta Irlanda.

131. Askapen nazionala lehendabizi (BIL-003/024)

ETAren barruan eztabaida gogorra izan dira beti askapen nazionala eta soziala direla eta. Krutwig-ek simil bat egiten zuen: lehenengo misila: askapen nazionala lortu behar du herri batek. Hori lortutakoan, askapen soziala. Denek lehen kolpez ulertzen zuten haren ideia.

132. Cambridge-tik itzuli eta kartzelara (BIL-003/025)

Donostiako trenaren ekintza gertatu (ETA Donostiara Eibar aldetik zihoan frankisten tren bat karriletik ateratzen saiatu zen 1962ko uztailaren 18an) eta gutxira itzuli zen Julen Cambridgetik. Agorrilaren (abuztua) 4an Bakion zen Julen lagun batzuekin; tabernatik irten eta beren etxera abiatu zen oinez. Etxe parean polizia zuen zain. Hango lagun batzuk ohartu ziren, baina ez zuten abisua pasatzeko astirik izan. Atxilotu eta Donostiako kuartelera eraman zuten. Ez zekien ezer Donostiako ekintzaz.

133. ETAren lehen bi ekintzak Bilbon (BIL-003/026)

Bilbon bi ekintza egin ziren: 1) Hierro egunkariari sua eman zioten kaleko soto-leiho batetik. 2) Bilboko komisariako baratzera dinamita bota zuten. Izutzea, beste helbururik gabe. Esan beharrekoa da komisariako etxe hori Julenen lehen emaztearen familiakoa zela, frankistek kendutakoa.

134. Gasteizen Gobernu Zibileko besaulkiari su (BIL-003/027)

Gasteizen Gobernu Zibileko itxarongelara sartu ziren aitzakiaren batekin, eta hango besaulkian kloratoa ezarri zuten. Kloratoak sutu egiten du denbora batera.

135. Santanderren, Alerta egunkariaren aurka (BIL-003/028)

"Arbol Malato"ren ohiturari uko eginez, Santanderren Alerta egunkariaren egoitzan sua eragin zuten.

136. Entrenamenduak basoan (BIL-003/029)

Entrenamenduak egiten zituzten basoan, aldez aurretik aukeratutako lekuetan. Landetan, esate baterako.

137. Torturetan hiru saihets hautsi zizkioten (BIL-003/031)

Atxilotu zutenean, lau egun eduki zuten Donostian torturapean. Meliton Manzanas zen torturatzailea. Gero Madrilera eraman zuten tren korreoan; 22 orduko bidaia. Oso gaizki pasatu zuen hiru saihets hautsiak zeramatzalako torturengatik. Oso minberak dira saihets hautsiak.

138. Carabanchelera heltzea ia zerura heltzea (BIL-003/033)

Carabanchelera ailegatzea infernutik ia zerura heltzea izan zen. Kuarentenan izan zuten han denboraldi batez. Oso funtzionario gaiztoak egokitu zitzaizkion.

139. Carabanchelen berriz torturatu zuten (BIL-003/034)

Poz handia hartu zuen bere erkideak Carabanchelen ikustean. Astean behin zinea izaten zuten;behin, eten, eta abisua entzun zen: "que salga el preventivo Julian de Madariaga a diligencias". Beste lau egun eta gauez torturatu zuten, baina "ez zuten lortu".

140. Multikopista salbatzeko komeriak (BIL-003/035)

Multikopista salbatzea zen bere helburua. Beren altxor handia zen. Danimarkakoa. Bilboko bulego baten zuten. Anaia inplikatu zuen horretarako.

Atxilotu egin zuten anaia Bilbon hori dela eta. Bitartean bi erkidek makina motokarro batean hartu eta bizpahiru egunez kalez kale erabili zuten. Horrela salbatu zen multikopista

141. Carabanchelen preso sei hilabetez (BIL-003/037)

Carabanchelen sei hilabete egin zituen. Iñaki Larramendi, Imanol Laspiur eta Rafa Albisurekin batera egon zen. Gela berean zeuden eta han zein patioan hizketarako edo irakurtzeko aukera izaten zuten. Frantziako sistema, berriz, ezberdina zen. Denbora gehiena gela indibidualetan itxita ematen da.

142. Jasandako torturak paper batean idatzi zituzten (BIL-003/038)

Erakundeko militanteak, segurtasun neurriak hartzeaz gain, formazio klaseekin hasi ziren: matematika, frantsesa, ingelesa... Gero paper berezi batean bakoitzak jasandako torturak idatzi zituen. Liburu batean argitaratuko laster paper haiek. Garai hartan ere tortura haien berri Vaticanora heldu zen, eta baita BBCra ere, Julenen aitak egindako itzulpenaren bidez. 1961a zen.

143. ELAko hiru eta PNVko bat espetxekide (BIL-003/039)

Hogeita hamar bat euskaldun ziren Carabanchelen. ELAko hiru. PNVko bat, Sabin Barrena, hau nahastua zegoen alderdiak aliatuen alde antolatutako informazio zerbitzuetan.

144. Komunistekin eta libertarioekin kartzelan (BIL-003/040)

100 bat komunista zeuden hasieran Carabanchelen, 40 bat gerora. Harreman zailak zituzten. Stalinen garaia zen artean. Haren metodoak erabiltzen zituzten. Hainbat aldiz harrapatu zituzten beren solasak entzuten atearen atzean. Zortzi libertario espainiar ere baziren. Horiekin primeran konpontzen ziren. Dena eskaintzen zioten elkarri.

145. Torturak salatu ala ez, eztabaida. (BIL-003/041)

Une batean, eztabaida sortu zen presoen artean torturak publikoki salatu ala ez. Luze jardun zuten. Batzuek ez zuten salatu nahi errepresalien beldurrez. Zazpi ziren, botaziora eraman, eta lauk ezetz eta hiruk baietz. Julen salatzearen aldekoa zen.

146. Harrera ikaragarria presoei trenean eta Donostiako geltokian (BIL-003/042)

1961eko urtarrilean irten zen kartzelatik. Guarda zibilez inguratuta, trenez ekarri zituzten. Mirandan presoen aldeko jendea igotzen hasi zen. Orduan debekatuta zeuden abesti guztiak kantatzen hasi ziren eurak. Guardia zibilak urduri. Donostiako geltokian izugarrizko jendetza harrera egiten, tartean Julenen familia artekoak. Gaua Martutenen eman eta hurrengo egunean karrikara, libre.

147. Espia bat jarri zuten Julenen etxe atarian (BIL-003/044)

Espia bat jarri zuten Julenen etxe atarian. Etxe aurrean eserita, egunkaria irakurriz denbora guztia. Leku guztietara jarraitzen zioten. Arriskua ikusita erakundearentzat, urte sabatikoa hartzea pentsatu zuen. Horrela, 1961eko apirilaren 14an, Errepublikaren Eguna, Iparraldera pasatu zen Dantxarineatik.

148. II Mundu-gerrako materiala lortu zuten anarkistengandik (BIL-003/046)

1962an, Baionako anarkista talde batekin harremanetan jarri ziren, eta haien bitartez, Okzitaniako Tolosakoekin. Tartean zen Federica Montseny, Errepublikako ministra izandakoa. Erresistentzian erabilita gero, lurpean gordeta zeukaten armamentua. Atera, konponketa batzuk egin eta ETAkoen esku geratu zen. Oso material ona omen zen.

149. Julenen aurkako segada Boluetan, hau Cambridgen zelarik (BIL-003/048)

Lehen aipaturiko "urte sabatikoa", Cambridgeko unibertsitatean igaro zuen 1961-62 ikasturtean, doktoretza egiten. Julen Cambridgen zela, 1962ko martxoan, guardia zibilak segada bat prestatu zuen Boluetan, auto bat tirokatu barruan bera zihoalakoan, eta pertsona bat hil eta beste bi zauritu zituzten. Oso informazio txarra omen zuen estatuak. Ez zekiten Madariaga Ingalaterran zenik. Tartean Bilbora etorri zen anaiaren ezkontzara. Hegazkinez egiten zuen atzera-aurrera, baina inoiz ez Bilbotik. Madril, Biarritz... ziren puntuak.

150. Borroka armatuaren oinarrizko etikaz gogoetak (BIL-003/050)

Astakeria asko egin da. Borroka armatuaren oinarrizko etikaz gogoetak. Azkoiti, Etxabe, Esnaola, Fandó... oso larriak iruditzen zaizkio horien aurkako difamazio kanpainak. Inkisizioa geure artean.

151. Txema Monterok bere bulegoan lan egiteko aukera eman zion egora zail batean (BIL-003/051)

Txema Monteroren aurka ere kanpaina gogorra egin zen. Txema izan zen bakarra Juleni egoera zail batean bere bulegoa ireki ziona lan egiteko. Sabino Arana Fundazioko zuzendaritza dela eta bien arteko solasak.

152. Minduta zenbait jenderekin (BIL-003/053)

Floren Aoizek berari buruz "tonto útil" zela esan zuen; 'Diario Vasco'n eta abar jaso ziren haren hitzak. Oso minduta dago horrekin. Patxi Zabaletak defendatu zuen. Duela 18 urte gertatu zen hori, eta geroztik ez dio ez barkarik eskatu, ez hitzik zuzendu. Ez dute gizonki jokatzen, eta horrelakoez ez da fidatzen.

153. 1963ko Itsasuko Aberri Eguna (BIL-004/002)

Oso oroitzapen ona du lehen Aberri Egun hartaz. Enbata eta ETAren artean egin zuten antolaketa, anaia-arrebak bezala. Hitzaldiak, bazkaria, bertsolariak... Ximun Haran eta Julenek, Iparraldearen eta Hegoaldearen izenean, Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zuten. Gero, etsaiek arbolatxoa hondatu zuten hiru edo lau aldiz, eta orduan erabaki zuten haren ordez harri eder bat ipintzea.

154. Iparraldearentzat gertaera garrantzitsua Aberri Egun hura (BIL-004/004)

Iparraldearentzat danbateko handia izan zen Aberri Egun hura. Enbatak hurrengo egunean zenbaki berezi bat atera zuen han esandakoekin. Labegerie ere han zen, baina tamalez Frantziaren alde joan zitzaigun. Bada muga bat Iparraldean: 1960aren aurrekoa eta geroztikoa.

155. Iparraldeko gose-greba, kontzientzia piztailea (BIL-004/006)

Iparraldeko zenbait jende preso hartu zuten, eta hiru pertsonak gose-grebari ekin zioten. Oihartzun handia izan zuen, arras mobilizatu zuen jendea iparraldean. Gose-grebalaria gehituz joan zen. Beste gose-greba batzuk ere izan ziren. Elkarrizketatzaileak aipatu diona 1971koa izango da ziurrenik. Berrogei bat lagun bildu ziren, Telesforo Monzon tartean.

156. Marc Legasse itzultzaile eta organista gose-greban (BIL-004/007)

Polizia lehen aldiz sartzen zen Frantziako Iraultzaz geroztik eliza batean. Marc Legassek "itzultzaile lana" egiten zuen horma baten hankalatraba jarrita, nahiz eta eurek ongi ulertu frantsesa. Barre asko egin zuten. Gauean, organo-kontzertuak ematen zituen.

157. Leizaola lehendakaria Monzon gose-grebalaria ikustera Baionako katedralera (BIL-004/009)

Baionako katedralean gose-greban zeudela, Jose Maria Leizaola l"Lehendakari zaharra" etorri zen Telesforo Monzon ikustera. Auzo-lotsa sentitu ei zuen. Leizaolak ikusi nahi omen zuen anabasa hartan bere kide batek nola jokatzen zuen. Eta Julenentzat harrigarriena edo penagarriena, ez zitzaiola hurbildu ere egin Telesforori.

158. PNVkoen ikusmina eta harridura mugimenduen aurrean (BIL-004/011)

PNVkoek ikusten zuten mugimendu berri eta erakargarriak ari zirela sortzen, ETA hegoaldean eta Enbata Iparraldean, eta elkarrekin ondo konpontzen zirela. Eta beren mezua, berriz, zaharkitua zegoela. Orain ulertzen du Leizaolaren ikusmina giro berri haren aurrean.

159. Dapena Amigo Espainiako koronela Itsasuko Aberri Egunean (BIL-004/013)

Dapena Amigo koronela, SIM (Servicio de Inteligencia Militar) delakoaren kidea, Itsasuko Aberri Egunean identifikatu zuten jende artean. Harrapatu, haritz baten aurrean inguratu, eta zartada bat edo beste eman zioten. Pareta baino zuriago ei zegoen. Zenbait gauza erran, eta askatu egin zuten. Han joan zen bere txoferrarekin autoan.

160. Leizaolaren alabekin erdaraz egin behar (BIL-004/014)

Itsasuko ekitaldia amaituta gero, Leizaolaren bi alaba aurkeztu zizkioten. Hitz egiterakoan jabetu zen lehendakariaren alabek ez zekitela euskararik. Harrituta geratu ziren bera eta han gertatu ziren besteak.

161. Erakundeen sortzaileen artean hegoaldera pasatzen zen bakarra (BIL-004/017)

Ez zaio horretaz mintzatzea gustatzen, baina galdetzen diotenean erantzun behar izaten du. Bera izaten zen erakundearen sortzaileetarik hegoaldera pasatzen zen bakarra, eta hirugarren, laugarren eta bosgarren bilkuretan egon zena.

162. Auzoan dendarik ez (BIL-006/011)

Auzoan eskola besterik ez zegoen, dendetara joateko Bilbora jaitsi beharra zuten. Hiletetan hilkutxa sorbalda gainean eramaten zuen aitak.

163. Arropa errekan garbitzen (BIL-006/015)

Karmele umea zenean etxean argi sistemarik ez zen, eta karburoa erabiltzen zuten. Urik ere ez zuten etxean, errekan garbitzen zuten arropa. Belarretan uzten zen arropa lehor zedin.

164. Portzelanazko lapikoak (BIL-006/019)

Garbiñek eta Karmelek janaria nola prestatzen zuten kontatzen dute. Parrilla bat zuten haragia egiteko, eta surtan egiten zuten gainontzekoa.

165. Bilbora sartzeko ordaindu beharra (BIL-006/024)

Bilbo sarreran etxolatxo bat zegoen, Bilbora sartzeko ordaindu egin behar izaten baitzen.

166. Gabonetan "Hator hator" (BIL-006/027)

Sutondoan egoten ziren askotan etxean, kontu-kontari. Kontatzen zituzten kontuak oroitzen ez badituzte ere, Karmelek "Hator hator" abesten du. Gogoan dute aitak "Hator hator" abesten zuela, gabonetan.

167. Abadea eskolaz eskola (BIL-006/029)

Gogoan dute bi ahizpek abade bat hurbiltzen zela soro eta eskoletara sermoiak botatzera.

168. Santa Agedako kantak (BIL-006/031)

Santa Agedan kuadrillak joaten ziren etxez etxe. Auzoko gizonak izaten ziren orokorrean, arropa arrunta jantzita.

169. Kandelazko farolak (BIL-006/032)

Karmelek eta Garbiñek kaleak argitzeko farolak dituzte gogoan. Kandelatxo bat sartzen zitzaien barruan. Garai batean, ordea, kandelak ez ziren ohikoak, soilik elizarako erabiltzen zirenak eta bedeinkatuak.

170. Logela partekatuak (BIL-006/035)

Baserrian asko zirenez, logela partekatu egiten zuten. Garbiñek amonarekin egiten zuen lo. Karmelek beste ahizpa batekin egiten zuen lo, ohe berean.

171. Artilezko koltxoia eta lumazko burkiak. (BIL-006/036)

Urtean behin koltxoiak astintzen zituzten. Hauek artilez betetakoak ziren. Burkoak, aldiz, etxean egiten zituzten, hegaztien lumekin.

172. Izarak etxean egiten zituzten (BIL-006/038)

Amona Bilbora jaisten zen izarak egiteko oihalen bila. Mantak, ordea, erosi egiten zituzten.

173. Bilboko medikua (BIL-006/040)

Urez betetako treska bat ateratzen zuten medikua etortzen zenean gorputza garbitzeko.

174. Korta etxe azpian (BIL-006/042)

Korta zuten etxe azpian, eta bertan behiak eta zerriak zituzten. Zerriak ezkur bila ateratzen zituzten. Bestela, barazki asko ematen zitzaien zerriei, urdaia ez zezan gantz gehiegi eduki. Oiloak ere izaten zituzten baserrian, zaharrak saldarako egiten zituzten.

175. Behiak, zerria, askota eta oiloak (BIL-006/044)

Baserrian zituzten animaliak aipatzen dituzten Garbiñek eta Karmelek.

176. Belar metak (BIL-006/046)

Argi-belarra eta artoa ereiten zuten soroetan ganaduari emateko. Lehortzen jartzen zuten kortan., eta ondoren metak egiten zituzten.

177. Garia eta artoa nola aletu (BIL-006/048)

Karmelek eta Garbiñek garia eta artoa nola aletzen zituzten kontatzen dute.

178. Gosaltzeko esne eta taloa (BIL-006/050)

Errotara jaoten ziren arto irina egitera. Gosaltzeko morokila, taloa eta esnea gosaltzen zuten. Astoaz joaten ziren errotara.

179. Frankismo gorrian lur harritsuari aitzurra sartzera ausartu zen gizona (BIL-010/001)

Gaztaroko kontuak gogoratzerakoan, gazi-gozoak etortzen dira. Francoren errepresioa, esaterako. Zaila zen orduan euskararen alde jardutea. Horregatik eskergarriagoak dira lur harritsu hartan aitzurra sartzera ausartu zirenak. Euskara eta Euskal Herriari buruz ez zegoen informaziorik. Eta norberak formatu behar zuen bere burua. Irakurtzen ziren liburu batzuk serioak ziren eta beste batzuk fantasiatsuak, baina horiek ere laguntzen zioten gure nortasunari eusten. Eta Otxandio bezalako herri txiki batean Bittor bezalako pertsona bat izatea harrigarria zen. Testuinguru horretan epaitu behar da haren lana.

180. Errespetu eta maitasun guztia zor diogu Bittorri (BIL-010/002)

Hizlari ona eta atsegina zen. Ekologiaz mintzatzen ez zen garaian, sentiberatasun handia zuen animaliekiko eta landareekiko. Baditu bere lorategian Bittorrek emandako loreak. Asko ikasten zuen berarekin euskarari edo literaturari buruz. Haren etimologiak kasu batzuetan fantasiak ziren, baina politak. Peru Abarkako maisua bezalakoak behar genituen, bestelakorik ez genuelako. Eta ikuspegi horretatik epaitu behar dela uste du Xabierrek. Gaur egunean badugu jende prestatuagoa unibertsitateetan eta. Baina ez du uste jende horrek eskubiderik duenik Bittorren lana gutxiesteko. Errespetu eta maitasun guztia zor diogu Bittorri.

181. Euskara batua bai, baina euskalkiak gordeta eta patxadaz (BIL-010/004)

Funtsezko gauzetan bat etortzen ziren. Euskara batuaren alde zegoen; hori bai, euskalkien aberastasuna galdu gabe. Bazituzten gauza batzuetan diferentziatxoak, baina ez inportanteak. Gauzak patxadaz eta poliki egin behar zirela azpimarratzen zuen. Basarri bertsolariaren kasua: euskara batuaren aurkakoa zen, baina bere bertsoak eta prosa ikusita, oso hurbil zegoen batutik.

182. Gauzak erdizka esaten zituen (BIL-010/005)

Anekdotak: "Ikusten dozu Xabier: etxe horretan andreak agintzen dau". Berarekin paseatzen asko ikasten zen herri-jakintzaz. Beste gauza bat: gauzak ez zituen osorik esaten, beti erdizka. Eta horrela pentsatzera bultzatzen zuen norbera.

183. Lan positiboa eta eskergarria egin zuen Bittorrek (BIL-010/006)

Batzuetan etimologia fantasiatsuak-eta bazituen, baina horregatik ezin da kritikatu. Denok dugu hanka sartzeko eskubidea. Kritikatzen dutenek galdetu beharko lukete ea Bittorren adineko zenbatek egin zuen garai hartan hark beste lan; eta ez da konparagarria karrerak egiteko aukera izan zuten maisu handiekin. Lan positiboa eta eskergarria egin zuen Bittorrek.

184. Euskaltzaleak naturazale izateko joera (BIL-010/007)

Euskalzaleok badugu naturazale izateko joera. Zergatik? Batzuen arduragabekeriagatik edo diruzalekeriagatik galtzeko arriskuan daudelako bai bata eta bai bestea. Bittorrentzat baziren balio batzuk diruz erosten ez direnak.

185. Euskararen gainbehera (BIL-011/002)

Euskaldun gutxi zegoen Buia aldean. Tomas Artarasek bere adineko jende oso gutxik hitz egiten zuela dio. Euskararen muga non kokatzen zen zehazten dute. Umeek beste euskara desberdin bat erabiltzen dutela iruditzen zaie.

186. Bentania vs. leihoa (BIL-011/003)

Leihoa eta "bentana" hitzen arteko desberdintasunei buruz ari dira.

187. Komuna vs. eskusatua (BIL-011/004)

Komunari eskusatua esaten dio Tomas Artarasek. Hala ere, Mariak txikitatik komuna esan du.

188. Bittor aspaldi konturatua zegoen politikak bere mugak dituela (BIL-012/001)

Politika arrazoiengatik ezagutu zuen Bittor. Baserria uzten zien gero HASI eta Herri Batasuna izango zen EHAS alderdia antolatzeko. Lizundia, Zabaleta, Agirreazkuenaga, eta uste du Kintana ere baietz, biltzen ziren, besteak beste. Gazteak sutondoan jarri ziren, eta Bittorren esaldia: "badirudi beroaren burgesia gustatzen zaizuela". Jende askorekin zuen harremana, Juan Ajuriagerrarekin, esaterako. Intuitiboa zela esaten da, baina ez zen dena berezkoa. Gizon jantzia zen, asko irakurtzen zuen, entzun ere bai, eta beti halako doinu ironiko batekin. Gure bihotzaren leku berezi batean gorde

beharreko gizona; errepikaezina. Erlijiotik politikara transferentzia bat egon zen Txemaren belaunaldian. Aurreko belaunaldiaren zutabea erlijioa zen eta hurrengoarena politika. Bittor aspaldi konturatua zegoen politikak bere mugak zituela, eta bazeudela beste gauza batzuk hura bezain inportanteak, euskara, euskal kultura, bizitzeko forma aszetiko bat... Gizon austeroa eta bakartia zen. Eredua izan daiteke beste modu batera ohituta dagoen gaurko jende askorentzat, eta nahiko luke Bittorren irudi hori ezagutaraztea.

189. Santutxu, herri txiki bat (BIL-013/004)

Bilboko auzoa izanagatik, herri bizitza egin daiteke Santutxun. Zerbitzu mailan aski ornituta dago.

190. Bilboko auzoen nortasuna (BIL-013/005)

Bilboko auzo gehienetan dago auzo-bizitza egiteko joera. Olatzek eta Anek gurasoengan ere ikusi izan dute hori.

191. Gaztedi Dantza Taldea; konpromisoa balore (BIL-013/007)

Gaztedi Dantza Taldeko partaide dira Olatz eta Ane. 6 urterekin hasi ziren dantzan, eta taldeari oso lotuta eta inplikatuta ibili izan dira gerora, partaide izan eta dantzatzeaz gainera, irakasle lanak egin eta ardurak hartzea egokitu baitzaie.

192. Dantza eta eguneroko martxa bateratzen (BIL-013/008)

Gaztedi Dantza Taldeak lana eskatzen die, eguneroko martxarekin nola-hala bateratzen asmatu behar dutena. Lana musutruk egiten badute ere, aberasgarri zaie oso, bizitzarako eskola moduan balio baitie.

193. Alde handiak adinean Gaztediko parataideen artean (BIL-013/009)

Alde handiak daude Gaztediko parataideen artean. Helduen taldean bertan, 15 urtetik hasi eta 30 urtetik gorakoak badaude. Garrantzitsuak dira talde kohesioa eta giro ona lortzeko antolatzen dituzten ekimen guztiak: poteoa, asteburu-pasak, irteerak...

194. Dantza taldeak denbora asko kentzen du (BIL-013/010)

Denbora da Olatz eta Aneri Gaztedik kentzen diena. Eurak horretaz kontziente dira, euren inguruak ere nozitzen baitu beren inplikazioa. Baina mugak jartzen asmatzen dute, ahal denetan, behintzat.

195. Gaztedi Dantza Taldearen sorrera (BIL-013/013)

1951. urtean sortua da Gaztedi Dantza Taldea. Olatz taldearen historia biltzeko asmoz egindako dokumental baten sorreran parte hartu du, eta argigarri bezain harrigarriak egin zaizkie lehen belaunaldietako partaindeen testigantzak.

196. Urteurrenak, 5 urtean behin (BIL-013/014)

Olatz eta Ane Gaztedi Dantza Taldearen 65. urteurrenean pentsatzen. Euren aurreko belaunaldiek mantentzen dute lotura taldearekin, eta urteurrenetan eta ekitaldi berezietan parte hartu ohi dute.

197. Gaztetxoenengan konpromisoaren hazia ereiten (BIL-013/016)

Ez da erraza taldeko gaztetxoei konpromisoaren arra txertatzea, eta, batez ere, gaur egun; izan ere, handia baita egun gazteei egiten zaien aisialdirako eskaintza. Baina hori omen taldearen iraupena bermatzeko modu bakarra, eta hala izan da taldearen sorreratik gaur egun arte.

198. Oso mutil dantzari gutxi dago (BIL-013/017)

Mutil dantzari gutxi dago, eta eskasia, batez ere, helduen taldeetan izaten da nabarmen.

199. Gurasoak dantzari (BIL-013/018)

Gurasoak dantzariak izateak asko eragin zuen Olatz eta Anerengan. Oso gogoan dituzte oraindik ume-umetan gurasoen entseguetara joaten ziren egunak. Horrek lagundu egin zien Gaztedirako pausua ematen, eta egun, taldea uzteko pentsamendua urrunarazten die.

200. Dantzara lotzeko adin zailak (BIL-013/019)

Nerabezaroa adin-tarte zaila dela diote, baina bada dantza alde batera utzi eta gerora itzultzen denik, eta ez omen dira gutxi. Euskal dantza moda-modan dagoena ez izanagatik ere, ez da dantzaririk falta Euskal Herrian zehar.

201. 60 urtetik gora eta osasuntsu (BIL-013/021)

Gaztedi Dantza Taldea 60 urtetik gora osasuntsu mantentzearen motiboak zehazten ez dago erraza. Beste auzo eta herri batzuetako taldeen lana goraipatzen dute Olatzek eta Anek. Tartean, Kastaños auzoko Salbatzaile taldea, Begoña Arroyok sortua.

202. "Gaur, sekta eguna" (BIL-013/023)

Gaztedikoak erreferente kulturala dira auzoan, baina baita tabernetan ere... Talde-giro ederra dute, noizean behin antolatzen dituzten parrandak lekuko. Ingurukoek esan izan diete, brometan, beti ere, Gaztedi sekta moduko bat dela.

203. Santutxu auzoa bizi-bizirik (BIL-013/024)

Auzoko elkarteek ekimen asko antolatzen dituzte euskara eta kultura sustatzeko, eta askotan izaten dira tabernekin lotuta.

204. Parrandan hasteko adina (BIL-013/026)

Olatzek eta Anek 15-16 urte inguru zituztela egin zuten lehen parranda; aukera izanez gero, ordea, ez lukete adin hori berriz izateko denboran atzera egingo.

205. Parranda egiteko modu asko (BIL-013/027)

Olatzen ustez parranda ez da egunerokotasunari ixkin egiteko bide bakarra, eta parrandarik onenak, aurrez pentsatzen ez direnak dira. Aneri gustatzen zaio asteburua ongi aprobetxatzea, tartean parranda egin behar bada ere. Dantza taldeak eman izan die halakoetarako abagunea.

206. Zer da parranda? (BIL-013/028)

Parranda ulertzeko modu asko dago, eta goraino mozkortzea ez da derrigorra.

207. Gaztedin euskara nagusi (BIL-013/030)

Euskaldunak dira dantza taldeko gehienak, eta euskara da nagusi Gaztedi Dantza taldean

208. Euskaraz bizitzen saiatzen (BIL-013/031)

Olatzek eta Anek argi ikusten dute Bilbon ez dagoela normalizatuta euskararen egoera, eta eremu guztietan erabiltzearen aldekoak dira, erraza ez dela badakiten arren.

209. Erregistro informalean gazteleraz (BIL-013/032)

Nerabezaroan euskarazko "gazte hizkera"ren hutsunea somatu izan dute, eta somatzen dute gaur egunean ere.

210. Hizkuntza joerak (BIL-013/033)

Euren hizkuntza joerak azaltzen dituzte Olatzek eta Anek.

211. Koadrillan gazteleraz (BIL-013/034)

Aneren koadrillan gazteleraz egiteko joera dute, eta horrek buruhauste bat baino gehiago sortu izan dio Aneri, batez ere, joera aldatzea zaila ikusten duelako, benetan.

212. Zenbait hizkuntza-ohitura aldatzea ez da erraza (BIL-013/036)

Umorea egiteko eta iraintzeko garaian Anek eta Olatzek ez dute pentsatzen zein hizkuntzatan ari diren. Irteten zaien moduan doaz umore kolpe zein zirtoak, baina, gehienetan, gazteleraz. Bestalde, euskalkiak sarri izaten dira umorerako gai.

213. Ingurukoen hizkuntza ohituretan eragiten (BIL-013/038)

Anek eta Olatzek sumatzen dute haiek inguruan hainbat eta hainbat esamolde gazteleraz esateko joera dagoela. Ohitura horiek aldatzearen aldekoak dira, lor daitekeela sinistuta daudelako, baina pixkanaka eragin behar dela uste dute, egoerak bortxatu gabe, eta ahalik eta naturaltasun handienarekin.

214. Hizkuntza hautuak eta idazkera sare sozialetan (BIL-013/040)

Sare sozialetan euskaraz aritzeko joera dute, baina hartzailearen arabera hizkuntza aldatzen dute, batere arazorik gabe. Idazkerari dagokionean, ez dira letrak "janez" mezuak laburtu zaleak, baina ahozko hizkera hobesten dute mezu motz eta zehatzak idazteko garaian.

215. Dantza taldeko barne komunikazioa euskaraz (BIL-013/042)

Gaztedi dantza taldeko antolakuntza lanetan aritzen dira Olatz eta Ane, eta gainontzeko kideei informazio jakina helarazi behar dietenean, euskara lehenesteko joera dute.

216. Hizkuntzak ikasteari buruz (BIL-013/044)

Olatz eta Aneri ez zaie nekeza euskaldun izatea. Euskaldun berri baten larruan jarri, ordea, eta nekosoa izango dela imajinatzen dute, baina behin hizkuntza ikasterakoan neke denak desagertzen direla diote.

217. Lagun xiberutarrak (BIL-013/046)

Gaztedi dantza taldeak maskarada bat jokatu zuen 2013ko udan Xiberuko Zalgizen. Pasarte honetan, euskalki kontuengatik elkar ulertzeko izan zituzten "arazoez" mintzo dira Ane eta Olatz.

218. Xiberuan maskarada jokatu zuteneko esperientziaren balorazioa (BIL-013/048)

2013 arte Xiberutik kanpoko inongo dantza-taldek ez zuen Xiberuko lurretan maskaradarik jokatu. Gaztedikoak izan ziren lehenak, eta Olatzek eta Anek esperientziaren berri ematen dute; arduraz eta errespetuz jokatzeko beharra sentitu zutela diote, eta emaitzarekin harro daudela.

219. Xiberutarrak Bilbon nahi ditugu orain (BIL-013/050)

Xiberutarrekin egindako harremanari segida eman nahi liokete aurrerantzean, eta xiberutarrek maskarada Bilbon jokatzea litzateke egun erronka.

220. Santutxuko maskaraden hasiera (BIL-014/002)

Santutxuko maskaradak nola hasi ziren. Zuberoara joan izan ziren eta bertan ikasi zituzten dantzak. 1994. urtean egin zuten lehenengo maskarada Santutxun. Oso eguraldi txarra egin omen zuen. Gero Bilbon ere egin zuten eta apurka-apurka beste herri batzuetara ere zabaldu zen.

221. Maskaradak berpizteko prozesua (BIL-014/004)

Maskaradak berriro egiten hasteko prozesua nolakoa izan zen kontatzen du. Izena eman zuen jendearen arabera paperak banatu zituzten; adin ezberdinetako jendea bildu zen.

222. Santutxuko maskarada, herriko eragileak elkartzeko aukera (BIL-014/005)

20 urte eta gero Santutxun berriz maskarada antzeztu zuten. Herriko eragile askoren laguntza izan zuten barrikadak prestatzeko. Beldurtuta eman zioten hasiera, baina harrera ona izan zuen ekitaldiak. Horren ostean, Bilbon ere egin zuten eta atzetik beste eskaera batzuk ere etorri ziren.

223. Maskaradak, mugak hausteko arrazoi (BIL-014/007)

Maskaraden bitartez, dantza taldeko kideek iparraldekoekin harremana landu zuten, eta iparralde-hegoalde muga hori gainditzea lortu zuten, elkartrukeari esker.

224. Lehen aldiz hegoaldekoen maskaradak Zuberoan (BIL-014/010)

Historian lehen aldia izan zen hegoaldekoak Zuberoan maskaradak dantzatzen aritu zirena. Horrek errespetu handia ematen zion dantza taldeari.

225. Zer da maskarada? (BIL-014/012)

Anek, bere bizipenetan oinarrituta, maskaradak zer diren eta nola sentitzen dituen azaltzen du. Goizeko eta arratsaldeko emanaldiak ere azaltzen ditu.

226. Maskaradetako koplak (BIL-014/013)

Maskaradetako pertsonaiak eta haien eginkizunak eta koplak azaltzen ditu. Goizeko eta arratseko emanaldiez ari da.

227. Zalgizeko maskaradako oroitzapenak (BIL-014/014)

Zalgizen maskarada egin zuteneko oroitzapenak. Urduritasuna, tentsioa, jendearen parte hartzea eta berotasuna ditu gogoan.

228. Basaurin euskara gutxi (BIL-015/002)

Laudiotik Basaurira bitartean euskara gutxi egiten dela uste du. Landa-eremuan ere, zenbat eta gorago orduan eta gehiago entzuten omen da. Hala ere, etxean ez dute euskaraz egiteko ohituratik.

229. Batua vs. euskalkia (BIL-015/003)

Gazteek euskara gutxi egiten duten arren, euskara batua ikasten dutela diote. Batua ulertzeko zailtasunak dituztela aitortzen dute Eugenia eta senarrak. Telebistak diona orokorrean ulertzen duten arren, euskara batuko hitz batzuk ez dituzte ezagutzen.

230. Euskara desberdina inguruko herrietan (BIL-015/004)

Arratiako euskara beti desberdina izan dela dio Eugeniak. Inguruko herrietako euskararekin alderatuz desberdintasunak daudela diote.

231. Gurasoen jatorriaz (BIL-015/007)

Eugeniaren senarraren gurasoen jatorriaz hitz egiten dute; gurasoak Finagakoak zituen. Eugenia Begoñakoa da eta gurasoak ere bertakoak ziren.

232. Euskaraz bizi nahia (BIL-015/008)

Eugeniak beti euskaraz hitz egin izan duenez erraztasun handiagoa duela dio. Senarrak ordea, anai-arrebekin ez du euskaraz egiten ia eta horregatik jariotasuna galdu izan duela aitortzen du. Eugeniak anai-arrebekin euskaraz egiteko ohitura du.

233. Euskara etorkizunean (BIL-015/010)

Gerraostean, euskaldun izateagatik barre egiten zietela kontatzen dute,. Aldiz, elkarrizketa hau egin zen unean egoera oso desberdina dela iruditzen zaie: Eugeniaren ustez euskaldunez jeloskor daude hitz egiten ez dakitenak . Tokian-tokiko hizkerak mantenduko direlakoan daude. Euskara Batuaren beharraz mintzo da Eugenia.

234. Jaunartzea bi aldiz (BIL-015/011)

Jaunartzea euskaraz egin zuen Eugeniak. Monjetan hasi ondoren eta, gaztelera ulertzen ez zuenez, jaunartzea berriz egin behar izan zuela kontatzen du .

235. Euskalkiak ez dira galduko (BIL-015/012)

Gaztelaniaz hitz egiten dutenek bezala, euskaraz ere denok berdin idatzi arren, euskalki bakoitzak bere ezaugarriak mantenduko dituela iruditzen zaio Eugeniari.

236. Telebistak esaten duenari ulertzeko zailtasunak (BIL-015/013)

Telebistan euskaraz hitz egiten dutenean ulertzeko zailtasunak izaten dituztela diote Eugenia eta senarrak. Gazteleraz ere hori gertatzen dela azaltzen du Eugeniak, elkarrizketetan erabiltzen duten hizkera jasoa delako.

237. Auzoa eta auzokoak (BIL-015/015)

Auzokoak kideak dira Eugenia eta senarrarentzat eta Finaga guztia auzoa dela azaltzen dute.

238. Lanean gazteleraz (BIL-015/016)

Jose Moja, Eugeniaren senarra, euskaraz bizi izan zen lanean hasi zen arte. Lanean gazteleraz hitz egiten hasi zenetik, gazteleraz hitz egin izan du beti. Nagusiak ez zekien euskaraz eta errieta egiten zion gazteleraz gaizki hitz egiten zuen bakoitzean.

239. Baserritik lanera (BIL-015/018)

Jose Mojak, Eugeniaren senarrak, baserrian jardun zuen txikitatik lanean. Tailerretik irteterakoan baserrian lan egiteko denbora gutxi geratzen zitzaion. Batetik bestera oinez joan behar izaten zenez, denbora gehiago behar izaten zuela kontatzen du.

240. Azokara tratua egitera (BIL-015/019)

Jose Moja, Eugeniaren senarra, jubilatu denetik lasai bizi da. Mungia eta Loiuko azkoara joaten da askotan etxeko abereekin tratua egitera. Iruzur egiten saiatu dira, baina zenbat eta gehiagotan joan, hainbat eta hobeto ezagutzen ditu trikimailu guztiak. Tratulariek euskaraz egiten ez duten arren, baserritarrekin euskaraz egiten du.

241. "Euskara barik turista moduan ibiliko nintzateke" (BIL-017/004)

Gauza normala iruditu zitzaion euskara ikastea. Euskalduna izan nahi zuen, bertako jendea bezalaxe. Hemengo bizimoduan parte hartzeko euskara garrantzitsuena dela dio.

242. "Etorkinak ere euskaldunak gara" (BIL-017/005)

Euskara dakien oro da euskalduna.

243. Euskara ikastea erraza baina garestia (BIL-017/007)

Euskara ikastea zaila dela mito bat da berarentzat: zaila baino garestia dela dio.

244. "Euskaraz egitea ez da erraza" (BIL-017/009)

Bilbon euskaldun moduan bizitza aurrera eramatea zaila dela dio.

245. Integraturik sentitzen al zara? (BIL-017/010)

Hizkuntzari esker oso integraturik dagoela sentitzen du, edonora joan daitekeela.

246. Familia eta galiziera ematen ditu faltan (BIL-017/012)

Hizkuntzak mundua ikusteko moduak dira.

247. Pozik eta lasai bizitzea helburu (BIL-017/013)

Dirua bidaiatzeko eta kulturak ezagutzeko erabiliko luke.

248. Denbora librean: bidaiak, lagunak eta familia (BIL-017/015)

Zaletasunak.

249. Liburuak eta egunkaria euskaraz (BIL-017/016)

Zinemazaleak dira oso etxean, baina ez dute telebistarik.

250. Sare sozialen erabilera (BIL-017/017)

Asko erabiltzen ditu sare sozialak bere denbora librean.

251. Musika izan zen Euskal Herriarekin lehen lotura (BIL-017/018)

Negu Gorriak taldearekin hasi zen euskal musika entzuten.

252. Antzerkia eta euskal dantza (BIL-017/019)

Euskal dantza ikasten hasi da duela gutxi.

253. Asteburuetan: poteoa, natura eta turismoa (BIL-017/020)

Asteburuko planak.

254. Ligatzea erraza da (BIL-017/021)

Hizkuntza ikasteko erraztasunak egon beharko liratekeela dio. Bertako mutilak lotsatiak ei dira.

255. Erdara nagusi aisialdian (BIL-017/023)

Hizkuntza erabilera testuinguruaren arabera aldatzen dutela dio. Bertako jendeak gaztelaniaz hitz egiteko joera handia ei du, eta amorrarazi egiten du horrek.

256. Irainak gaztelaniaz (BIL-017/025)

Umorea adierazteko, orokorrean, euskara erabiltzen du. Hiketa, ordea, ez du erabiltzen.

257. "Hizkuntzarekiko planteamendua aldatu behar dugu" (BIL-017/026)

Euskarari buruzko iritzia.

258. Zein da euskararen etorkizuna? (BIL-017/028)

Euskararen egoera aldatu behar dela dio, instituzio arloan batez ere.

259. Jordiri buruz (BIL-018/001)

1985. urtean jaio zen Jordi, Bartzelonan. Orain Bilbon bizi da, Alde Zaharrean. Katalana, euskara, gaztelania eta ingelesa. Politika zientziak ikasi zituen. Mendira joatea, zinema eta musika ditu gustuko.

260. Euskara zerotik ikasten hastea zaila da (BIL-018/007)

Zaila bada ere, ordainsaria handia da.

261. Euskaraz egunez egun? (BIL-018/008)

Inguruaren arabera aldatu egiten da. Bilbon gehiago erabiltzea gustatuko litzaioke. Inguruan jende askok daki euskaraz, baina ez du erabiltzen.

262. Inguruan egunerokotasunean erdaraz (BIL-018/010)

Jordiren adineko gehienak euskaldunak dira bere inguruan, baina Jordi da euskara gehien egiten duena.

263. "Euskararekin ate asko zabaltzen dira" (BIL-018/011)

Ez da bertakoa sentitzen, katalana sentitzen da. Aldi berean, ordea, euskalduna ere bada. Bestetik, integrazioa bere kasuan erraza izan da, bikote ohia bertakoa baitzen.

264. Bizitzako helburuak (BIL-018/013)

Bizitza ona eta gizarte justuago eta libreagoa ditu helburu.

265. "Kontua da euskara behar bat bihurtzea" (BIL-018/015)

Batzuek hizkuntza aniztasunak euskara arriskuan uzten dutela uste dute, baina Jordi ez dago ados ideia honekin.

266. Zer egiten duzu aisialdian? (BIL-018/017)

Poteatu, kirola egin, mendira joan, kontzertuak, musika... Telebista euskaraz ikusteko aukera gutxi dagoela dio.

267. Gaztelaniaz eta katalanez irakurriz (BIL-018/018)

Euskaraz irakurtzea kosta egiten zaiola kontatzen du Jordik, batzuetan ez baitu irakurritakoa guztiz ulertzen.

268. Sare sozialak eta teknologia (BIL-018/019)

Sare sozialei eta teknologia berriei buruz.

269. Katalanen kolektiboaren parte (BIL-018/020)

Ekintza sozialetan aktiboki hartzen du parte.

270. Zer egiten duzu asteburuan? (BIL-018/021)

Hitzaldiak, mendia eta kultur jarduerak dira asteburuetako protagonistak.

271. Erraza al da ligatzea Euskal Herrian? (BIL-018/022)

Beste lekuekin alderatuta zailagoa dela dio, baina kontua mitifikaturik dagoela, ez dela hainbesterako.

272. Bilbon aisialdia orokorrean erdaraz (BIL-018/023)

Bilbon bertan, hala ere, euskal giroa dagoela kontatzen du, non bizitza euskaraz egiteko aukera ematen duen.

273. "Euskara paralizaturik dago, ez dago aurrerapenik" (BIL-018/024)

Euskara geroz eta gehiago menperatzen da, baina egunerokotasunean erabilera ez da hobetzen.

274. Bilbotarra eta euskaraz (BIL-019/002)

Aitak "onean edo txarrean" euskaraz egingo zutela esaten zien. Jendea harritu egiten zen bilbotarra izanda euskaraz jakiteaz.

275. Herrietako umeen euskara-erabilerarekin kezkatuta (BIL-019/005)

Terek kezkatuta dagoela dio herrietako umeen hizkuntza-erabilera ikusita. Zeanuri jartzen du adibidetzat. Lehen umeek dena euskaraz egiten zuten. Orain, eskolan eta etxean euskaraz, baina kalean jolastu gaztelaniaz. Guraso askok gaztelaniara jotzen dute euren euskara ez dela ona eta umeek eskolan ikasten dutena hobea dela pentsatuta.

276. Gurasoek euskaraz bizitzeko apustua egin zuten (BIL-019/007)

Bilboko "Gran Vía"ko 39.ean jaio zen 1919an. Etxean dena euskaraz egiten zuten. Amak ez zekien euskaraz ezkondu zenean, baina eurekin batera ikasi zuen. Neskameak ere euskaldunak ziren. Gurasoentzat erronka gogorra izan zen "contra corriente" zihoazelako. Nebak Indautxuko jesuitetan hasi ziren 9 urterekin. Koldo nebak lehen egunean bizitakoa, otoitz egiten euskaraz bakarrik zekielako. Bera moja gipuzkoar batengana eramaten zuen aitak, dotrina euskaraz ikastera. Hara joateko "el puente de la perra chica" pasa behar.

277. Gerraren hasiera, erbestea eta Bilbora itzulera (BIL-019/009)

Umetan bi urte gaixorik egin zituen. Gerra zibilaren hasierak Ingalaterran harrapatu zuen eskolan eta ezin etxera itzuli. Ingalaterratik Frantziara joan zen eta han bat egin zuen gurasoekin. 1942an itzuli ziren Bilbora eta oso une gogorra izan zen. Aita 1948an itzuli zen, aurretik Venezuelan egon zen eta.

278. Lehen euskarazko eskolak Bilbon (BIL-019/010)

Ikastolen sorrera. Bizkaiko lehen euskarazko eskola San Nikolasen ipini zuten. Zazpi ikasle hasi ziren Maria Angeles Garai irakaslearekin; 21 ikaslerekin amaitu zuten ikasturtea. Hura itxi ostean, bigarren eskola Irala kalean izan zuten, hiru andereñorekin. Autobus txiki bat ere erosi zuten. Eskola itxi eta irakasleak atxilotu ostean, klaseak gurasoen etxeetan ematen hasi ziren. Etxe batetik bestera aldatzen ziren. Beldurra izaten zuten.

279. Baimenarekin irekitako lehen ikastola; inaugurazioko kontuak (BIL-019/011)

Baimenarekin irekitako lehen ikastola Elkano kaleko 6.ean ireki zen "Resurreccion Maria de Azkue" ikastola izan zen. Madrilera buelta asko egin ostean, txiripaz lortu zela baimena dio. Inaugurazio eguneko kontuak. Gurpide gotzaina eta Sanchez Bizkaiko hezkuntzako inspektorea bezperan joan ziren, gelei onespena ematera. Gela bakoitzean Francoren eta Primo de Riveraren argazkia eta gurutzea zeuzkaten jarrita, baina bandera falta zitzaiela esan zieten. Retolazatarren aroztegian egin zuten banderaren makila. Guraso batzuek ez zituzten umeak halako ikurrak zituzten geletara bidali nahi, baina beraientzat garrantzitsuena euskaraz irakastea zen. Elbira Zipitria ere ez omen zen inoiz han sartu, banderagatik. Xabier Peña, berriz, gela bakoitzean bat jartzeko prest, euskarari lehentasuna emateagatik.

280. 1936an Ingalaterrara, ingelesa ikastera (BIL-019/012)

Etxean hiru hizkuntza erabiltzen zituzten umetatik, frantsesez ere egiten zuten eta. 1936an ingelesa ikastera joan zen Ingalaterrara. Wight irlan egon zen. Hango bizipenak. Hango jatekoa gustatzen zitzaion. Larunbatetan txangoak egiten zituzten; behin argazki kamerarekin gertatutakoa. Zakarrik lurrera ez botatzen ikasi zuen.

281. Uholdea nola bizi izan zuten Donibane Lohitzunen (BIL-019/014)

Bilbon uholdeak izan zirenean, Donibane Lohitzunen zegoen bera. Donibanetik Baiona aldera abiatu zen kotxean, lobak hartuta, baina buelta hartu zuen euri erauntsiarekin beldurtuta. Arratsaldean ibaian hiru karabana ikusi zituen abiada bizian pasatzen. Bilbora lau-bost geroago iritsi zen eta artean dena basaz beteta zegoen.

282. Errepublika sasoian koloretako zintekin eskolan gertatutakoa (BIL-019/017)

Errepublika sasoian, "Sagrado corazón" kolegiora joaten zenean, 11-12 urterekin, neska guztiek zinta hori-gorriak zituztela liburuetan ikusi zuten. Lagun batzuek elkarrekin hitz egin eta beraiek ere gauza bera egitea pentsatu zuten, baina Errepublikako koloreekin. Hurrengo egunean eskolan liburuak ireki zituztenean iskanbila sortu zen. Azkenean eskolak erabaki zuen kolore gorria bakarrik erabil zezaketela, Jesusen bihotzaren kolorea. Zinta guztiak jaso zituztenean, pozik geratu ziren, garaipena lortu izan balute legez.

283. Semeak gudari eta mezan haien kontrako kontuak entzun behar (BIL-019/023)

Bermeoko anai frantziskotar batzuek hango gizon baten inguruan kontatutakoa. Gizonak bi edo hiru seme gudari zeuzkan. Mezara joan eta gudarien aurkako auskalo zer kontu entzun behar izan zituen. Gehiago ez zuela oinik ipiniko elizan agindu zuen. Gerora, urtean behin Arratiako tranbian Zeanuriraino joan, handik Gorbeia mendira igo eta hantxe hitz egiten omen zuen Jainkoarekin.

284. Bilbon dotrina euskaraz jartzeko lanak (BIL-019/027)

Bilbon lehen dotrina euskaraz ipini zuteneko kontuak. Elizarekin eta abadeekin izan zituzten tira-birak. Azkenean lortu zuten sei parrokiatan euskarazko dotrina jartzea. Lehen jaunartzea euskaraz egin ahal izateko ere arazoak: goizeko seietan egiteko esan zieten. Karmele Goñik abadeekin izan zituen liskarrak.

285. Munduan zehar euskarari esker (BIL-019/030)

Munduan zehar ibili denean gehien balio izan diona euskara izan dela dio. Itsasontzi guztietan topatu izan ditu euskaldunak. 1939an New York-era iritsi ziren senarra eta biak eta handik beste barku bat hartu behar zuten Venezuelara. Barkuko arduradunetako batekin bizi izan zuten pasadizoa; Natxitukoa zen!

286. 1948an Estatu Batuetatik barkuan kaxaz beteta (BIL-019/031)

1948an Estatu Batuetara joan ziren hilabeterako. Hegazkinez joan eta itsasontziz itzuli. Euskal Herrian sasoi horretan ez zegoen ezer eta enkargu zerrenda luze batekin joan ziren. Zertzuk ekarri zituzten. Besteak beste, Barandiaranentzat magnetofono bat, grabaketak egiteko. Guztira kutxa handi pila bat. Barkura sartzean, paper batzuk eman zizkieten, ea zer zeukaten deklaratzeko adieraz zezaten. L´Arbrera iritsi eta handik Parisera trena hartzea zen asmoa, baina ez zioten utzi. Arduradunari deitu zioten eta hizketan hasi zirenean Itsasukoa zela jakin zuen. Berehala dena martxan jarri zuen, beraiek trena hartu ahal izateko. Dena euskarari esker.

287. Garai bateko Bilboko "Gran Vía" eta inguruak (BIL-019/036)

Bilboko "Gran Vía" 39an jaio zen, baina berak bi urte zituela handik joan ziren. Anaia-arreba gazteagoak 41. zenbakian jaio ziren.Tranbia. Ingurua nolakoa zen. Baserriak zituzten gertu. Indautxura joateko zezen plaza baten ondotik pasatzen ziren.

288. Gidabaimena ateratzeko, zerbitzu soziala egin behar (BIL-019/041)

Gidatzeko baimena 1943an atera zuen Bilbon. Horretarako, aurrez zerbitzu soziala egin behar zen. Ezkonduek ez zuten behar, horregatik agiria eskatzera joan zen. Zerbitzu soziala non zegoen.

289. 1939an Venezuelara; hara joandako euskaldunen egoera (BIL-019/045)

1939an Venezuelara joan ziren eta hamabost hilabete egin zituen han. Orduko Caracas nolakoa zen. Solairu bateko etxeak; eskorpioiak eta zomorroak. 300.000 biztanle zituen. Kontraste handia zegoen: jende oso aberatsa eta miseria. Jendeak itxura ona emateagatik larruzko jakak erabiltzen zituen, bero egin arren. Hasieran joan ziren euskaldunek txarto pasatu zuten. Nekazaritza zela etorkizuna pentsatu zuten eta dirua horretan inbertitu, baina ez zitzaien ondo joan. Gerora, eraikuntzan hasi zirenean, hobetu zen egoera. Han egon ziren euskaldun batzuk aipatzen ditu: Atxurra familia, Isidro Monzon arkitektua...

290. Bilboko ikastola; lokal handiagoa behar (BIL-019/050)

Bilbon martxan ipini zuten lehen ikastolak gerora ez zuen jarraitu, gauzak aurrera ateratzea zaila zelako. Elkano kaleko lokala txiki geratu zitzaien. Hasieran alde bat zeukaten eta gero beste aldea ere lortu zuten, bertan bizi zen emakumea handik alde egiteko konbentzitu ostean. Milioi bat agindu zioten eta dirua 30 egunean batu behar izan zuten. 1969a zen. Berriz txiki geratu ostean, "Gran Vía"ko pisu batera joan ziren. Han "Centro de estudios Oñate" izena hartu zuen. Pixkanaka lau solairu hartu zituzten. Umeek Plaza Eliptikoan jolasten zuten. Aparkaleku zaintzaile batekin gertatutako pasadizoa.

291. "Centro de estudios Oñate"ren itxiera (BIL-019/051)

Arrazoi askorengatik ezin izan zuten ikastolarekin jarraitu "Gran vía" kalean. Kooperatiba bat sortu zen orduan. Ume txikiekin jarraitu zuten hasieran, baina gero dena itxi zen.

292. Angel Elejabarrieta Villotaren familiaz (BIL-028/001)

293. Zergatik egin zion Begok grabaketa aitari (BIL-028/002)

294. Aitak ilusio handia Errepublika aldarrikatu zenean (BIL-028/003)

295. Estatu kolpea: familia Bretainiara eta gero Kataluniara (BIL-028/004)

296. Angel Elejabarrieta 16 urterekin ejerzitoan sartu (BIL-028/005)

297. Audioa Angel Elejabarrieta: frenteko gora-beherak (BIL-028/006)

298. Ebrotik Bartzelonara eta handik Portboura erretiradan (BIL-028/007)

299. Argeles sur Mer-eko kontzentrazio esparruko bizimodu latza (BIL-028/008)

300. Gurseko kontentrazio esparrua eta Jean Annic bere bila etorri zenekoa (BIL-028/009)

301. Bretainiako egun ederrak eta prefektuak baimena luzatu ez (BIL-028/010)

302. Hendaian atxilotu eta Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura (BIL-028/011)

303. Audioa Angel Elejabarrieta: Argeles sur Mer-eko kontzentrazio esparruko bizimodu latza (BIL-028/012)

304. Galizia, Tetuan, Lleida… 1945 arte (BIL-028/013)

305. Bilbora itzuli eta lanean hasi (BIL-028/014)

306. Gursera bisita 1982an eta amorratuta itzuli (BIL-028/015)

307. Felix Elejabarrietari buruz (Angelen anaia): ANVkoa, kartzelan egona. (BIL-028/016)

308. Teofilo Elejabarrieta (Angelen anaia): Athleticen partida aprobetxatuz Belgikara egin zuen ihes (BIL-028/017)

309. Jean Annic: Angel babestu zuen erresistente bretoia (BIL-028/018)

310. Claudia Gonzalez Diez (Begoren ama): Artxandako lubakiak egiten (BIL-028/019)

311. Hausnarketa (BIL-028/020)

312. Patxiren aitaz (Pedro Azkarate) informazio gutxi (BIL-028/021)

313. Patxiren amaren (Tere Maturana) familia exiliotik itzuli eta etxerik ez (BIL-028/022)

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-17

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com